DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza · Secretaría

**UDAL *OSOKO* BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2017ko irailaren 26(e)an / 26 de septiembre de 2017**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA / SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 26/09/2017

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alkate andrea | Aitziber Irigoras Alberdi | Presidentea | EAJ-PNV |
| 2. Alkatordea, | M. Jose Balier Orobiourrutia | andrea | EAJ-PNV |
| 3. Alkatordea, | Iker Oceja Sobron | jauna | EAJ-PNV |
| 4. Alkatordea, | Goiztidi Diaz Basterra | andrea | EAJ-PNV |
| 5. Alkatordea, | Victor Humberto Jaio Sagasti | jauna | EAJ-PNV |
| 6. Alkatordea, | Jose Mari Andres Ibañez De Garayo | jauna | EAJ-PNV |
| Doña | Olaia Albizu Gallastegui | andrea | EAJ-PNV |
| Don | Harri Guridi Ordeñana | jauna | EAJ-PNV |
| Don | Daniel Maeztu Perez | jauna | EH-BILDU |
| Doña | Eider Uribe Padilla | andrea | EH-BILDU |
| Don | Jon Andoni Del Amo Castro | jauna | EH-BILDU |
| Doña | Rosa Mintegi Egileor | andrea | EH-BILDU |
| Don | Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu | jauna | EH-BILDU |
| Don | Aritz Bravo Zubillaga | jauna | EH-BILDU |
| Don | Iker Urquiza Quilez | jauna | EH-BILDU |
| Don | Juan Julian Rios Santiago | jauna | SQ-2D |
| Doña | Mª Juliana Perera Figueredo | andrea | SQ-2D |
| Don | Jorge Varela Dorrio | jauna | SQ-2D |
| 1. Alkatordea, | M. Pilar Rios Ramos | andrea | PSE-EE |
| Don | Mauricio Garcia Martin | jauna | PSE-EE |
| Don | Francisco Garate Mintegui | jauna | PP |
| Doña | Mª Pilar Velasco Perez | andrea | KHO |
| Don | Ramon Angel Sorarrain Tolosa | jauna | IO |

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza · Secretaría

**BAT.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: Aurrekontuaren exekuzioa 2017ko lehenengo seihilabetekoan. Diru-sarreren exekuzio-maila 2017ko ekainaren 30ean %67,08koa izan da; portzentaje horretatik % 79,83a ohiko diru-sarrerei dagokie eta %0,66 kapitaleko diru-sarrerei. Gastuari dagokionez exekuzio-maila %49,06koa izan da; horretatik ohiko gastua %55,51 izan da eta kapitalekoa % 15,80a.

Urtea aurrera doan neurrian ikusiko dugu aldatuz joango dela diru-sarreren eta gastuen exekuzio-maila. Jakinaren gainean izango zaituztegu.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Gainerako gai guztiak, bai prozesuan daudenak eta baita bukatuta daudenak, zuen esku daude Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**UNO.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: Ejecución del presupuesto en el primer semestre de 2017. El nivel de ejecución de ingresos a 30 de junio de 2017 ha sido del 67,08 %; de dicho porcentaje, un 79,83% corresponde a ingresos ordinarios y un 0,66 % a ingresos de capital. En lo referente al gasto, el nivel de ejecucuión ha sido del 49,06 %; de dicho porcentaje, un 55,51 % corresponde al gasto ordinario y un 15,80 % al gasto de capital.

A medida que avance el año veremos cómo evoluciona el nivel de ejecución de ingresos y gastos. Os mantendremos informados.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: El resto de los temas, tanto los que se encuentran en proceso como finalizados, están a vuestra disposición en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**BI.- 2017/2019 DURANGOKO UDALEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II PLANAREN ONARPENA. (BERDINTASUNERAKO BATZORDEAREN IRIZPENAREN DUENA 2017KO UZTAILAREN 6A).**

Gai hori aztertu izan da urtarrilaren 10ean, otsailaren 21an eta maiatzaren 16ko batzordeetan.

Batzorde horietan hurrengo gaien gaineko informazioa helarazi da:

***Planaren zirriborroa egiteko martxan jarritako prozesu parte-hartzailea.*** Udaleko/Erakunde Autonomoen politikari/langileekin eta herritarrekin (Berdintasun Kontseilua, elkarteak, banakako moduan parte hartu duten pertsonak) lan saio desberdinak garatu dira.

**DOS.- APROBACIÓN DEL II PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO 2017-2019. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE IGUALDAD DE 6 DE JULIO DE 2017).**

Este asunto ha sido sometido a estudio en las comisiones previas de fechas de 10 de enero, 21 de febrero y 16 de mayo.

En dichas Comisiones se ha informado sobre las siguientes fases de elaboración del plan de igualdad:

***Proceso participativo de elaboración del borrador del plan.*** Se han desarrollado diferentes sesiones de trabajo, tanto con personal del Ayuntamiento/Organismos autónomos como con la ciudadanía (Consejo de Igualdad, asociaciones, personas a título individual).

***Planaren zirriborroaren egiaztatzea.*** Behin behineko planaren zirriborroa jaso denean, herritarren eskura jarri da (Web, sare sozialak) hauen ekarpenak jasotzeko helburuarekin.

***Emakundera bidaltzea.*** 4/2005 LEGEA,otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoa-k agintzen duen modura, planaren zirriborroa Emakunderi helarazi zaio, txostena egin dezan.

Emakunderen txosten positiboa jasota egonik, Udaleko Osoko bilkuraren onespena jasotzea da prozesuaren azken izapidea.

Horrenbeztez, Pilar Ríos-ek, Berdintasun Batzordearen Presidenteak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Berdintasun Planaren onarpena Osoko Bilkurara eramatea bozkatzea proposatzen du.

Botaketaren emaitzak:

Aldeko botoak: 2 ( 1 PSOE eta 1 SD-2D).
Kontrako botoak: 0.
Abstentzioak: 2 (EH Bildu).

Batzordeak, gehiengo sinpleagatik, onartu du Udaleko osoko bilkurara eramatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Berdintasun Plana onartzen duen proposamena.

(Planaren dokumentua ondorengo helbidean kontsultatu daiteke: www.durango.eus/validacion ondorengo balioztatze zenbakia jarriz: 11343044507755076603).

***Contraste del borrador del plan.*** Una vez elaborado el borrador del plan se ha puesto a disposición de la ciudadanía (Web, Redes sociales) para recabar sus aportaciones.

**Envío a Emakunde.** Tal y como señala la LEY 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se ha enviado el borrador del plan a Emakunde para su informe de validación.

Una vez recibido el informe positivo por parte de Emakunde, la aprobación del mismo por el pleno de la Corporación constituye el último trámite del proceso.

En este contexto, Pilar Ríos, Presidenta de la Comisión de Igualdad, somete a votación la propuesta de elevación a pleno la aprobación del II Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres 2017-1019.

Resultados de la votación:

Votos a favor: 2 ( 1 PSOE y 1 SD-2D).
Votos en contra: 0.
Abstenciones: 2 (EH Bildu).

Por mayoría simple esta Comisión eleva al pleno de la Corporación la propuesta de aprobación del II Plan de Igualdad para Mujeres y Hombres 2017-2019.

(El documento del Plan puede consultarse en la siguiente dirección: www.durango.eus/validacion introduciendo el siguiente número de validación: 11343043746534726145).

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Batzordeak eta kontseiluak etorkizuna berehala etorri eta berdintasun-plan batek zentzurik izango ez duen garaia gogoan hartuta egindako lan bat berresteko unea da. Helburua herritarrek irizpide jakin batzuk bereganatu eta, hortaz, alderdi hori lantzea beharrezkoa izango ez den momentua iristea da.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Es momento de rectificar un trabajo realizado por la comisión y el consejo de cara a que el futuro sea mañana y un plan de igualdad no tenga sentido, porque la ciudadanía haya adquirido unos criterios que no hagan necesario trabajar este aspecto.

Plana ñabardurarik gabe babesten dugu, eta berdintasuna printzipio eztabaidaezina dela defendatzen dugu; inork ezin du planak adierazitakoaren aurkako iritzirik eman. Batzordeko eta kontseiluko kide guztiak zoriondu nahi ditugu, eta plana errealitate bihurtzeko zereginean lagundu. Eta halako plan bat lantzeko eta haren inguruan eztabaidatzeko beharrik ez dagoenean, gu beti egon behar izan dugun tokian izango gara. Haren alde bozkatuko dugu.

* 1. Alkate ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Bistan da gaur hona ekarritakoa Durangoko Udaleko emakumeen eta gizonen arteko bigarren berdintasun-plana dela. Planarekin batera, azterketa bat burutu da, Durangoko emakumeen egoera islatzen duena zenbait alderditan; horri esker, hainbat ekintza abiatu ahalko ditugu.

Plan honek udal honetan abian jarri den transbertsalitate-prozesuan sakontzen duela nabarmendu nahi nuke. Gobernu-Talde honentzat lehentasun bat da genero-ikuspegia gure herri-politika guztietan eta udaletxearen egituran bertan txertatzea, asmoa bi maila zeharo ezberdinetan eragitea delako: alde batetik, gizarte-mailan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrera egiteko; bestetik, udaletxeko barne-lanerako prozesuak egokitu beharra dago, estrategia hori bideragarria izan dadin.

Transbertsalitate horren txertaketa hainbat mekanismoren bidez burutzen ari gara: berdintasuneko ekimen transbertsalak barne hartzen dituzten aurrekontuak —dakizuenez, sail guztietan abiatu ditugu halako egitasmoak—, udaletxe honetako talde tekniko osoak osatutako transbertsalitate-mahai baten sorrera, udaletxeko langile guztiei eskainiko zaien berdintasun mailako formazioa, ordenantza fiskalen berrikuspena; herritarrekiko ituna genero-indarkeriaren aurreko prebentzioa transbertsalizatzeko, eta beste ekintza asko.

Apoyamos este plan sin matices y defendemos que la igualdad es un principio incuestionable, nadie puede defender una postura contraria a lo que este plan manifiesta. Queremos felicitar y animar a todos los componentes de la comisión y el consejo y llevarlo a que todo ello sea una realidad. Y cuando un plan como este no tenga sentido trabajarlo y debatirlo estaremos donde deberíamos haber estado siempre. Votaremos a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Está claro que lo que traemos hoy aquí es el documento que contiene el segundo plan de igualdad de mujeres y hombres del Ayuntamiento de Durango. Con este plan se acompaña un diagnóstico que se ha llevado a cabo y que nos da una fotografía actualizada de la situación de las mujeres de Durango en determinados aspectos; ello nos va a permitir llevar a cabo diferentes actuaciones.

Quiero destacar que este plan hace hincapié en el proceso de transversalidad que se ha iniciado en este ayuntamiento. Para este Equipo de Gobierno es una prioridad que la perspectiva de género se integre en todas las políticas públicas que llevamos a cabo y lo que es la propia estructura del ayuntamiento, porque se trata de incidir en dos niveles completamente diferentes: por un lado, el nivel social para avanzar en la igualdad entre hombres y mujeres; y, por otro lado, adecuar los procesos de trabajo interno del ayuntamiento para hacer posible esta estrategia.

La implantación de esta transversalidad la estamos llevando a cabo a través de diferentes mecanismos: algunos de ellos son los presupuestos con iniciativas transversales de igualdad, como sabéis en todos los departamentos se han incorporado proyectos; la creación de una mesa de transversalidad formada por todo el personal técnico de este ayuntamiento; la formación en igualdad que se va a dar a todo el personal del ayuntamiento; la revisión de las ordenanzas fiscales; el pacto con la ciudadanía para transversalizar prevención contra la violencia de género y muchas acciones más.

* Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea): Plan hau berdintasun-kontseiluarekin batera landu da, eta oso eduki eta garapen interesgarriak ditu. Hori dela eta, beharrezkoa denean, hura gauzatzeko konpromisoa eta ausardia izatea espero dugu.

* Uribe Padilla andreak (EH Bildu): Gure aldetik berdintasun plan bati ezin zaio ezetz esan eta alde bozkatuko dugu, baina gu bilatzen ari garena eta, hau proposamen moduan luzatzen dugu, biolentziaren kontrako plan integral bat da.

Azpimarratu nahi dugu formazioa eta prebentzioa direla oso klabeak gizarte honetan indarkeriarik ez emateko, eta uste dugu txiki txikitatik umeekin lantzeko gai bat dela; hezkidetza planak, biolentzia matxistaren prebentziorako ikastaroak eskolekin landu behar dugu.

Alderdi Popularreko ordezkariari esan nahi diot lan egiteko batzordeetan egon behar dela eta ez da bere kasua izan, inplikazioa ez da bera izan.

* 4. Alkate ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV): Ni nintzen arloko zinegotzia lehenengo berdintasun plana martxan jarri zenean; oraingo honetan ez naiz, baina asko pozten nau bigarren plan honek bere martxa hartzeak. Eskerrak eman nahi dizkiot kontseiluari bertako kideen eskutik ateratzen baita %90a baino gehiago. Ondo dago plan integrala aipatzea, ez gara geratu behar plan bakar batean. Gaurko pausoa garrantzitsua da, ziur nago mundu guztia gogor saiatuko dela plana aurrera ateratzeko.

* Garate Mintegui jaunak (PP): EH Bilduko Bozeramaileari esango diot guztiok huts egin dugula inoiz batzorderen batera, ez dut aipatuko zenbat alditan ez den bertaratu bera; berdintasun-planaz arituko gara, horixe baita gaurko gaia. Berak, nik neuk eta Durangoko herritarrek nahi duguna planak aurrera egitea

* Concejal Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea): Este es un plan que se ha trabajado junto al consejo de igualdad y tiene un contenido y un desarrollo muy interesante, y es por esto que esperamos que cuando sea necesario tengamos tanto el compromiso como la valentía de llevarlo a cabo.

* Concejala Uribe Padilla (EH Bildu): Por nuestra parte, no podemos rechazar un plan de igualdad, así que votaremos a favor. Pero nuestro objetivo es lograr un plan integral contra la violencia; decimos esto a modo de propuesta.

Queremos subrayar que la formación y prevención son claves para erradicar la violencia en esta sociedad y, en nuestra opinión, debería ser un tema a tratar con los niños desde pequeños. Debemos trabajar los planes de coeducación, los cursos de prevención de la violencia machista con los colegios.

Quiero decirle al edil del Partido Popular que debe estar en las comisiones de trabajo, ya que no es su caso, no ha tenido la misma implicación.

* 4ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV): Yo era la concejala de esa área cuando se puso en marcha el primer plan de igualdad; ahora no lo soy, pero me alegra enormemente la puesta en marcha de este segundo plan. Quiero darle las gracias al consejo, pues son sus miembros quienes redactan el plan en más de un 90 %. Está bien citar un plan integral, no deberíamos conformarnos con un solo plan. El paso de hoy es importante, así que estoy segura de que todos trataremos de llevarlo a cabo.

* Concejal Sr. Garate Mintegui (PP): A la Portavoz de EH Bildu le comento que todos hemos faltado en algunas ocasiones a las diferentes comisiones, no voy a entrar en cuantas veces a faltado ella; nos tenemos que centrar en un plan de igualdad que es de lo que se trata. Tanto ella, como yo, y todos los

da. Hura babesten dugu eta haren egileak egindako lanagatik zoriontzen ditugu; haren alde bozkatuko dugu.

* 1. Alkate ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Plan honen aldeko botoak eskertzen ditugu eta, hura gauzatzeko, guztiok hartan sinestea garrantzitsua dela uste dugu.

Indarkeriaren aurkako plan transbertsal bat izan beharko genukeelako proposamenari dagokionez, badugu, izan ere, horretan lanean ari gara. Lan-mahai ezberdinak osatu dira; horietako bat hezkuntza sailarekin batera, iaz jada ikastetxeekin batera lanean hasi baikinen, genero-indarkeriaren inguruko ikastaroak eskainiz.

Iaz hala eskatu ziguten, eta aurten udal honen ekimena izan da haietara deitzea eta, oporralditik bueltan, bilera bat antolatzea. Plan honen zati bat abian da dagoeneko, lanean hasteko beharrezkoak diren tresnak edonoren eskura baitaude.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Guk lan egiten dugu batzordeetan eta batzordeetatik kanpo ere bai. Alderdi Sozialistako Bozeramaleak esan duenarekin ados gaude, horrela jarraitzea edo gauza gehiago planteatzea eskatzen dugu. Pasa den ostegunean Durangaldeko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jokabide eta koordinazio protokoloa aurkeztu zen, zinegotzi guztientzat.

Protokolo honen arabera, erasotzailea da salaketa jaso duen pertsona eta argi daukagu gu 21 zinegotzi garela eta horietako bat erasotzaile moduan dagoela. Kasu honetan, eskatzen diogu Fran Garateri -eta ez Alderdi Popularrari- puntu honetan ez bozkatzea; uste dugu berak puntu honetan ez lukeela bozkatu behar.

Hemendik bi puntutara jorratuko den puntuan gure kide batek ez du bozkatuko, eta uste dugu, kasu honetan, Fran Garatek puntu honetan ez duela bozkatu behar. EH Bilduk

ciudadanos de Durango lo que queremos es sacar el plan adelante. Lo apoyamos y felicitamos el trabajo desarrollado, y vamos a votar a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Agradecemos los votos a favor que va a tener este plan y creemos que es importante que todos y todas creamos en él para poder llevarlo a cabo.

En cuanto a la aportación que se ha hecho de que deberíamos de tener un plan transversal contra la violencia, lo tenemos, se está trabajando en ello. Se han creado diferentes mesas de trabajo; una es con educación porque ya el año pasado empezamos a trabajar con los centros realizando talleres sobre la prevención contra la violencia de género.

El año pasado nos lo solicitaron y este año ha salido desde este ayuntamiento la iniciativa de llamarles, convocarles y de empezar de hacerlo nada más volver de vacaciones. Parte de este plan ya está en marcha, ya se ha puesto las herramientas necesarias para empezar a trabajar en ello.

* Concejala **Uribe Padilla (EH Bildu)**: Nosotros trabajamos tanto en las comisiones como fuera de ellas. Estamos de acuerdo con lo dicho por la Portavoz del Partido Socialista; pedimos seguir así y plantear más temas. El pasado jueves se presentó a todos los concejales el protocolo del Duranguesado para la actuación y coordinación contra la violencia contra las mujeres.

Según ese protocolo, la persona que recibe una denuncia es un agresor, y todos tenemos claro que somos 21 concejales y uno de nosotros consta como agresor. En este caso, solicitamos a Fran Garate —no así al Partido Popular— que no vote; creemos que no debería votar este punto.

Uno de nuestros compañeros no votará el tema que se tratará dos puntos después, por lo que creemos que Fran Garate no tendría que votar este punto. EH Bildu cree en la

berdintasunean sinistu egiten du eta haren alde egiten du apustu. Eskerrak eman nahi dizkiogu berdintasun plan honetan lan egin duten pertsona guztiei eta egunerokotasunean lanean dabilen jendeari.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **2017/2019 Durangoko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren**, espedientean dagoen testua, **ONARTZEN** da.

igualdad y apuesta por la misma. Queremos agradecer su labor a las personas que han colaborado en este plan de igualdad y a todas aquellas que trabajan a diario por lograrla.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda **APROBAR** el **II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Durango 2017/2019**, conforme al texto que figura en el expediente de su razón.

**HIRU.- ALDAKETA RIO DE ORO GKEREKIN SINATUTAKO HITZARMEN NOMINATI BOAN. (GIZARTE EKINTZA ETA ENPLEGU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2017KO IRAILAREN 5EKOA).**

HERRIA elkarteak utzi egin ditu saharar herriari laguntzeko orain arte egiten zituen jarduerak. Hain zuzen ere, 2016 arte zuen hitzartuta udalarekin “OPORRAK BAKEAN” eta “KARABANA SOLIDARIOA” programak garatzea.

Orain, RIO DE ORO GKEak jorratuko ditu haren programak.

Udalak RIO DE ORO GKEarekin hitzarmena sinatu zuen dibertsitate funtzionala duten saharar umeen udalekuak egiteko.

Gauzak horrela, RIO DE ORO GKEaren hitzarmena aldatzea proposatu da. Hitzarmenaren xedea eta diru-kopurua aldatuko dira, orain arte HERRIAk egindako jarduerak RIO DE OROk egingo dituelako.

Hauxe da hitzarmenean aldatuko den edukia:

**“RIO DE ORO GARAPENERAKO LANKIDE TZAREN ELKARTEAk HARTZEN DUEN KONPROMISOA” atalean honako puntu hauek gehituko dira:**

**TRES.- MODIFICACION DEL CONVENIO NOMINATIVO SUSCRITO CON LA ONG "RIO DE ORO". (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL Y EMPLEO DE 5 DE SETIEMBRE DE 2017).**

Se informa que la asociación HERRIA, con la cual el ayuntamiento ha tenido suscrito convenio hasta el año 2016 para el desarrollo de los programas: “VACACIONES EN PAZ “y “CARAVANA SOLIDARIA” de apoyo al pueblo Saharaui, ha dejado de realizar esta actividad.

La asociación ha pasado el relevo en los mencionados programas a la ONG RIO DE ORO.

El ayuntamiento tiene suscrito un convenio con la ONG RIO DE ORO para la realización de la colonia de verano destinada a los niños y niñas Saharauis con diversidad funcional.

Ante esta situación, se propone la modificación del convenio suscrito con la ONG RIO DE ORO, modificación que recoge tanto el objeto del convenio, al aumentar las actividades que desarrollara asumiendo las realizadas hasta ahora por HERRIA, como de la cuantía del mismo.

Así, la modificación en el contenido del convenio es la siguiente:

**En el apartado de “COMPROMISO ASUMIDO POR LA ASOCIACIÓN DE COOPERACION AL DESARROLLO RIO DE ORO”. Se introducen los puntos:**

*"Ondorengo ekintza hauek antolatzea eta egitea:*

- *Neska-mutiko sahararren harrera kudeatzea, uda Durangoko familiekin pasatzeko.*

- *Elkartasun Karabana egitasmoari laguntzea. Proiektuaren helburua oinarrizko elikagaiak biltzea da, gero, Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetara eramateko, Euskal Herriko karabana solidarioaren koordinatzailearekin elkarlanean."*

Hitzarmenaren zenbatekoari dagokionez, 18.000 eurotik 41.875 eurora handituko da.

Batzordeko Presidentak, Pilar Riosek RIO DE ORO GKEaren hitzarmenean aldaketak onartzeko bozketa egitea proposatu du. Emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (2 EAJ/PNV), 1 PSE-EE (PSOE), 1 HE-SQ-2D, 1 EH Bildu eta 1 PP).
- Kontrako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Batzordeak onera irizpena ematen du, leku erabakigarrian seinalatuko den proposamena Osoko Bilkurara jasoz.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 1. Alkate ordea **<u>Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)</u>**: Río del Oro GKEarekin izenpetuta dugun hitzarmenaren aldaketa azaldu nahi dut. Aldaketaren arrazoia hau da: Herria elkarteak bertan behara utzi ditu urte luzean burutu dituen bi programa.

Alde batetik, Oporraldia Bakean programa, Saharako haurrak uda Durangaldeko familiekin igarotzea ahalbidetzen zuena; bestetik, Karabana Solidarioa, oinarrizko elikagaiak biltzea helburu zuena Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko.

*"Organizar y realizar la siguiente actuación:*

- *Gestionar la acogida de niños y niñas Saharauis, para que pasen el verano acogidos en familias Duranguesas.*

- *Gestionar el proyecto Caravana Solidaria, cuya finalidad es la recogida de alimentos básicos y su posterior envío a los campamentos refugiados del Tinduf, en colaboración con la coordinadora de caravana solidaria del País Vasco. "*

En relación a la modificación de la cuantía del convenio, ésta pasa de 18.000€ a 41.875€.

La Presidenta de la Comisión, Pilar Rios somete a votación las modificaciones presentadas en el convenio suscrito con la ONG RIO DE ORO, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (2 EAJ/PNV), 1 PSE-EE (PSOE), 1 HE-SQ-2D, 1 EH Bildu y 1 PP).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo tanto, la Comisión dictamina favorablemente, elevando al Pleno la propuesta que se señalará en la parte resolutiva.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 1ª Tnte. de Alcalde **<u>Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)</u>**: Quiero explicar la modificación de este convenio que tenemos subscrito con la ONG Río del Oro. El motivo de esta modificación se debe a que la asociación Herria deja de realizar dos programas que venía realizando desde hace años.

Estos dos programas son, por un lado Vacaciones en Paz, que es la acogida de niños y niñas saharauis para que pasen el verano con familias duranguesas y, por otro lado, la Caravana Solidaria, que como sabéis tiene como finalidad la recogida de alimentos básicos para el envío a los campamentos de los refugiados de Tinduf.

Aldaketaren ondorioz, bi jarduera horiek Río del Oro GKEak burututko ditu orain, eta bere ohiko jarduerarekin jarraituko du, hau da, aniztasun funtzionala duten haurrentzako udalekuak antolatzea. Arrazoi horiengatik, aldaketa bat egin dugu hitzarmenean, 18.000 eurotik 41.875 eurora pasatuz.

Con esta modificación, ambas actividades pasan a desarrollarse por la ONG Río de Oro, que además seguirá desarrollando su actividad, que es la colonia de verano para niños y niñas con diversidad funcional. Por estos motivos hay un cambio en la cuantía del convenio que pasa de 18.000 euros a 41.875 euros.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiot Herria elkarteari urte luzez egindako lanagatik.

Quiero aprovechar desde aquí para dar las gracias a la asociación Herria por el trabajo que ha venido haciendo desde hace años.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Entzun berri ditugun hitzekin bat egiten dugu; Herria elkartea zoriondu nahi dugu, Durangoko herri osoak aitortzen dion zereginagatik. Hori dela eta, aldeko bozka emango dugu.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Reiteramos lo que acabamos de escuchar; queremos felicitar a la asociación Herria que ha realizado una labor reconocida por toda la población de Durango, y, por ello, votaremos a favor.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Ederra da orain arte Herriak bultzatu izan duen proiektua. Gure esker ona adierazten diogu hartan lanean aritutako urte luzeengatik, baita Río del Orori ere, haren lekukoa hartzeagatik. Gure iritziz, oso interesgarria da halako ekimenak babesten jarraitzea, beraz, aldeko bozka emango dugu.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Este era un bonito proyecto que venía desarrollando Herria. Nuestro sincero agradecimiento por todos estos años que han colaborado con este proyecto y también nuestro agradecimiento a Río de Oro que recoge el testigo. Creemos que es muy interesante seguir apoyando estas iniciativas por lo que nuestro voto será a favor.

* **Uribe Padilla andrea (EH Bildu)**: Gure aldeko bozka aurreratzen dugu. Eskerrak eman gura dizkiogu Herria Auzo elkarteari egindako lan guztiagatik eta gainera jarraipena izango duela ikusteak poztu egiten gaitu.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Anticipación nuestro voto favorable. Queremos dar las gracias a la asociación vecinal Herria por toda su labor y, además, nos alegra saber que dicha labor va a tener continuidad.

* 4. Alkate ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Eskerrak eman Herria elkarteari egindako lanagatik eta eskerrak baita ere Río del Oro elkarteari lekukoa hartzeagatik.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Agradecemos a la asociación Herria el trabajo realizado y también damos las gracias a la asociación Río del Oro por tomar el testigo.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, hauxe erabadi du:

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

**LEHENA**.- RIO DE ORO GKEaren hitzarmenean ondorengo aldaketak sartzea:

**PRIMERO**.- Modificar el convenio de la ONG RIO DE ORO introduciendo los siguientes puntos:

("RIO DE ORO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ELKARTEAk HARTZEN DUEN KONPROMISOA" atalean)

*"Ondorengo ekintza hauek antolatzea eta egitea:*

- *Neska-mutiko sahararren harrera kudeatzea, uda Durangoko familiekin pasatzeko.*

- *Elkartasun Karabana egitasmoari laguntzea. Proiektuaren helburua oinarrizko elikagaiak biltzea da, gero, Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetara eramateko, Euskal Herriko karabana solidarioaren koordinatzailearekin elkarlanean."*

(En el apartado de "COMPROMISO ASUMIDO POR LA ASOCIACIÓN DE COOPERACION AL DESARROLLO RIO DE ORO")

*"Organizar y realizar la siguiente actuación:*

- *Gestionar la acogida de niños y niñas Saharauis, para que pasen el verano acogidos en familias Duranguesas.*

- *Gestionar el proyecto Caravana Solidaria, cuya finalidad es la recogida de alimentos básicos y su posterior envío a los campamentos refugiados del Tinduf; en colaboración con la coordinadora de caravana solidaria del País Vasco. "*

**BIGARREN**.- RIO DE ORO GKEaren hitzarmena handitzea hamazortzi (18.000) eurotik berrogeita bat mila zortziehun eta hirurogeita hamabost (41.875) eurora.

**SEGUNDO**.- Ampliar el convenio nominativo de la ONG RIO DE ORO de dieciocho mil (18.000,-) euros a cuarenta y un mil ochocientos setenta y cinco (41.875,-) euros.

**LAU.- KOBANE HERRIAREKIN ELKARTA SUNA SUARGI GKEAREKIN HITZARMEN NOMINABITOA SINATZEKO PROPOSAME NA. (GIZARTE EKINTZA ETA ENPLEGU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2017KO IRAILAREN 5EKOA).**

SUARGI elkarteak bere egoitza soziala Durangon dauka, eta Rojavako federazioan eta Siriako Iparraldean proiektuak garatzen laguntzeko jaio zen.

SUARGIk Durangoko eta Rojava eta Iparraldeko Siriako emakumeen arteko lankidetza bultzatu gura du, esperientzien elkartruketik abiatuta.

Batzorde honetan elkarteko ordezkariekin elkarrizketa izan eta gero, Gizarte Ekintzako presidenteak batzorde kideei KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA SUARGI ELKARTEA GKEarekin hitzarmen nominatiboa sinatzeko zirriborroa aurkeztu du.

**CUATRO.- PROPUESTA DE SUSCRIPCIÓN DE CONVENIO NOMINATIVO CON LA ONG "SUARGI SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE". (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL Y EMPLEO DE 5 DE SETIEMBRE DE 2017).**

SUARGI es una asociación con sede social en Durango, que se creó para ayudar a desarrollar proyectos en la Federación de Rojava y Norte de Siria.

La asociación pretende fomentar la cooperación entre las mujeres de Durango y la de la Federación de Rojava y Norte de Siria, desde el intercambio de experiencias.

Tras las entrevistas realizadas en esta comisión con los representantes de la asociación, la presidenta del Área de Acción Social presenta a los y las componentes de la comisión el borrador del convenio nominativo a suscribir con KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA SUARGI ELKARTEA ONGD.

***"DURANGOKO UDALAREN ETA KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA SUARGI ELKARTEA GKE-AREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA"***

***BILDURIK**: Batetik, PILAR RIOS RAMOS andrea, NAN 30.647.115-Y zenbakiduna, DURANGOKO UDALEKO Alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik, NAN 14.586.472-X zenbakiduna.*

*Eta, bestetik, KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA, SUARGI ELKARTEA GKE-aren izenean bere Presidente MIKEL GANDARIAS JAIO jauna, NAN 78927537R zenbakiduna.*

***DIHARDUTE**: PILAR RIOS RAMOS andreak, udalaren izenean eta Alkateorde delarik, 2015ko ekainaren 29an, alkate-dekretu bidez onarturiko delegazioarekin bat etorriz; RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak, udaleko Idazkari Nagusi moduan eta, MIKEL GANDARIAS JAIO jaunak, KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA, SUARGI, ELKARTEko presidente moduan eta berau ordezkatuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorriz.*

***AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko*

***ADIERAZTEN DUTE:***

*I.- SUARGI elkarteak bere egoitza soziala Durangon dauka, eta Rojavako federazioan eta Siriako Iparraldean proiektuak garatzen laguntzeko jaio zen.*

*II.- SUARGIk Durangoko eta Rojava eta Iparraldeko Siriako emakumeen arteko lankidetza bultzatu gura du, esperientzien elkartruketik abiatuta*

*Elkarteak zubi-lana egin gura du bi herrietan emakumeen ahalduntzea eta askatasuna garatzeko sortu diren elkarteen artean.*

***"CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE"***

***REUNIDOS**: De una parte, Doña PILAR RIOS RAMOS, con D.N.I. nº 30.647.115-Y, Teniente de Alcaldesa del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistida del Secretario General Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.*

*Y de otra, la ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE, representada por Don MIKEL GANDARIAS JAIO, con D.N.I. nº 78927537R, en su condición de Presidenta de la asociación.*

***ACTUAN**: Doña PILAR RIOS RAMOS, en su calidad de Teniente de Alcaldesa, en nombre y representación del Ayuntamiento, en virtud de la delegación acordada por la Alcaldesa mediante decreto de 29 de junio de 2015; Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, en su calidad de Secretario General del Ayuntamiento y Don MIKEL GANDARIAS JAIO, como presidente de la ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su Junta Directiva.*

***RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan*

***MANIFIESTAN:***

*I.- SUARGI es una asociación con sede social en Durango, Bizkaia. Que se creó para ayudar a desarrollar proyectos en la Federación de Rojava y Norte de Siria.*

*II.- Que la asociación pretende fomentar la cooperación entre las mujeres de Durango y la de la Federación de Rojava y Norte de Siria, desde el intercambio de experiencias.*

*SUARGI trata de ser un puente ente las organizaciones surgidas para desarrollar el empoderamiento y la liberación de las mujeres entre ambos pueblos.*

*III.- Durangoko Udalak elkarlanerako marko egonkor bat izan gura du SUARGIrekin. Asmo hori argi eta garbi adierazi zen 2017ko martxoaren 24an, Durango eta Kobane senidetzean. Udalak konpromisoa hartu du senidetutako bi herrien arteko harremanak sendotzeko jarduerak martxan jartzeko eta bi herrietako herritarren parte hartze zuzena sustatzeko.*

*Horrexegatik, ondorengo lankidetza-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituena.*

***BETEBEHARRAK:***

***DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA**.- Durangoko Udalak 22.000 (HOGEITA BI MILA) euroko diru-laguntza emango dio KOBANE HERRIAREN ELKARTASUNA, SUARGI GKEari. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.*

***KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA, SUARGI, GKE-AK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.***

*Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:*

- *Rojavako federazioan eta Iparraldeko Sirian emakumeen etxeak eraikitzeko diru-laguntzak kudeatzea.*
- *Kobaneko emakumeen etxearen eta Durangoko Andragunearen arteko informazio elkartrukean laguntzea, horrela, bi komunitateen intereseko proiektuak garatu ahal izateko.*
- *Udalarekin elkarlanean jardutea, udalak Rojavako federazioko eta Iparraldeko Siriako herritarrak babesteko garatuko dituen proiektuetan.*
- *Durangoko herritarrei Rojavako eta Iparraldeko Siriako herrien egoeraren berri ematea.*

*III.-Que el Ayuntamiento de Durango desea mantener un marco estable de colaboración con SUARGI, como ya explicito en el hermanamiento entre Durango y Kobane, llevado a cabo el 24 de Marzo de 2017, en aras de procurar la puesta en práctica de actividades que refuercen las relaciones de las ciudades hermanadas y la directa participación entre ambas.*

*Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes*

***CLAUSULAS:***

***COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO**.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 22.000 (VEINTIDOS MIL) euros a la ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango.*

***COMPROMISO ASUMIDO POR LA ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE.***

*Organizar y realizar la siguiente actuación:*

- *Gestionar las ayudas económicas destinadas a la construcción de las Casas de las Mujeres de la Federación de Rojava y Norte de Siria.*
- *Facilitar la transmisión de información entre la Casa de la mujer de Kobane y Andragunea de Durango, en aras de desarrollar proyectos de interés común.*
- *Colaborar en los proyectos desarrollados por el Ayuntamiento cuya finalidad sea el apoyo los pueblos que conviven en la Federación de Rojava y Norte de Siria.*
- *Difundir ante la ciudadanía la situación de los pueblos de la federación de Rojava y del Norte de Siria.*

- *Gastuen justifikazioa, 2017. urteko fakturekin.*

- *2018. urteko lehenengo hiru hilabeteetan jardueraren memoria zehatza aurkeztea.*

- *Ekintzak udalak diruz lagundutakoak direla argiro uztea agerian, elkarteak programaren berri zabaltzeko informazio grafiko, idatzi eta entzuteko guztietan.*

***DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA***.- *Durangoko Udalak honela ordainduko dio KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA, SUARGI, GKEari: %80a hitzarmena sinatzen den hilabetearen azken egunean ordainduko da. Gainerako %20a diru-laguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.*

***IRAUPENA***.- *Hitzarmena bertan behera geldituko da 2018ko martxoaren 31n.*

***HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA***.- *KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA, SUARGI, GKE-ak hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.*

***BATERAGARRITASUNA***.- *Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.*

- *Justificación de gastos mediante facturas correspondientes al año 2017.*

- *Presentación de memoria detallada de su actividad dentro del primer trimestre de 2018.*

- *Hacer constar de forma clara que la actividad está subvencionada por el Ayuntamiento de Durango, en toda la información grafica, escrita y sonora que la asociación realice con motivo del programa o en su difusión.*

***FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN***. - *El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a la ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE, se realizará de la forma siguiente: 80% el último día del mes de la firma del convenio. El 20% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.*

***DURACIÓN***.- *El presente convenio quedará extinguido el 31 de marzo de 2018.*

***EXTINCIÓN***.- *El incumplimiento de los compromisos adquiridos por la ONG SUARGI, SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE, producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.*

***COMPATIBILIDAD***.- *La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.*

***ARAUDI OSAGARRIA.**- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki egimeneko araudi bateragarria.*

*Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen honen hiru ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.*

***NORMATIVA COMPLEMENTARIA.**- En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.*

*Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por triplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados.*

Batzordeko Presidenteak proposamena bozkatzea eskadu du. Emaitza:

- Aldeko botoak: 5 (2 EAJ/PNV), 1 PSE-EE (PSOE), 1 HE-SQ-2D) eta 1 EH Bildu).
- Kontrako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 PP).

Hortaz, Batzorde honek aldeko irizpena ematen du, Osoko Bilkuran erabakitzeko hurrengo proposamena:

BAKARRA.- Egokia balitz, KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA SUARGI GKEren aldeko hitzarmen nominatiboa onartzea, guztira hogeita bi mila (22.000,00) euro.

La Presidenta de la Comisión somete a votación la propuesta, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (2 EAJ/PNV, 1 PSE-EE (PSOE), 1 HE-SQ-2D y 1 EH Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 PP).

Por lo tanto, la Comisión dictamina favorablemente, elevando al Pleno la siguiente propuesta:

ÚNICO.- Aprobar si procede el convenio nominativo a la ONG SUARGI SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE por un importe de veintidós mil (22.000,00) euros.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 1. Alkate ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Kasu honetan, Suargi Kobane herriarekiko elkartasuna GKEarekin hitzarmen berri bat izenpetzea proposatzen dugu. Elkarte honek Durangon du egoitza, eta Siriako iparraldean proiektu ezberdinak sustatzeko sortu zen. GKE honen helburua Durangoko emakumeen eta Rojava eta Siriako iparraldeko emakumeen arteko lankidetza sustatzea da, esperientzia-trukaketatik abiatuta.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En este caso lo que proponemos es la subscrición de un nuevo convenio con la ONG Suargi Solidaridad con el pueblo de Kobane. Esta asociación tiene su sede en Durango, y se crea para desarrollar proyectos en el norte de Siria. El objetivo que tiene esta ONG es fomentar la cooperación entre las mujeres de Durango y las de la federación de Rojava y norte de Siria, y lo quieren hacer desde el intercambio de experiencias.

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza · Secretaría

Azken batean, Suargik bi herrietako emakumeen ahalduntzea eta askapena garatzeko zubi bat izan nahi du. Hitzarmena 22.000 eurokoa da, eta nagusiki Siriako iparraldeko emakumeen etxea eraikitzera bideratuko da eta Andragunearen eta emakumeen etxearen arteko komunikazioa erraztuko du.

Finalmente, lo que Suargi trata de ser es un puente para que se desarrolle el empoderamiento y la liberación de las mujeres de ambos pueblos. El convenio tiene un importe de 22.000 euros, y se destinará principalmente a la construcción de la casa de las mujeres en el norte de Siria y facilitará la transmisión entre Andragunea y la casa de las mujeres.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Errepikatzea saihesteko, argudioak argi daude eta guk alde bozkatuko dugu.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Para no repetirme, los argumentos están claros y nuestra posición es favorable.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gaur proiektu honi ekarpen txiki bat egingo diogu, beharrezkoak diren baliabideak eskainiz, konpromiso hori hartu genuelako hirien arteko senidetzea egin genuelako. Horregatik, aldeko bozka emango dugu.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Hoy venimos a aportar este pequeño granito de arena a este proyecto, y lo hacemos dotándolo de los medios necesarios por los que nos comprometimos cuando realizamos el hermanamiento entre ciudades. Por ello, votaremos a favor.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Gure aldetik esan ondo iruditzen zaigula hitzarmen hau. Kurdistango herria bizitzen ari den egoera ezagutzeko balio digu, gainera emakumeen gaian ere asko lagunduko dugu. Izan ditugu aukera batzuk egiten den lana ezagutzeko eta benetan eskertzen diogu Suargi elkarteari. Zorionak talde honi ere bai.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Por nuestra parte, decimos que nos parece bien este convenio. Esto nos permitirá conocer la situación que vive el pueblo del Kurdistán, así como ayudarnos en el tema referente a la mujer. Hemos tenido oportunidad de conocer la labor que realizan y le damos las gracias por ello a la asociación Suargi. Felicidades también a ellos.

* 4. Alkate ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure bozka aldekoa izango, da proiektuaren alde gaudelako eta uste dugulako merezi duela proiektu hauetan parte hartzea.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nuestro voto será favorable, puesto que estamos a favor del proyecto y pensamos que merece la pena colaborar con el mismo.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, hauxe erabaki du:

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

Egokia balitz, KOBANE HERRIAREKIN ELKARTASUNA SUARGI GKEren aldeko hitzarmen nominatiboa onartzea, guztira hogeita bi mila (22.000 €) euro, lehen transkribatutako testuaren arabera.

Aprobar el convenio nominativo a LA ONG SUARGI SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE KOBANE por un importe de veintidós mil (22.000,- €) euros, conforme al texto anteriormente transcrito.

**BOST.- 2017KO UZTAILAREN 18AN JARRITAKO KEREILAREN AURKEZPENA BERRESTEA, ALEGIA, 1937KO MARTXOAREN 31N DURANGON (BIZKAIA) GOIZ ETA ARRATSALDEAN ERAGINDAKO BONBARDAKETETAN PARTE HARTU ZUTEN ESTATU ESPAINIARREAN DESTINATUTA ZEUDEN AIRE ARMADA ITALIARRA OSATU ZUTEN "OPERAZIONE MILITARE SPAGNA (OMS)"-EKO KIDEEN AURKA.**

**Aurretiazko eginbideak 216/2017**

Lehena.- Durangoko alkatete andreak, Durangoko bonbardaketa batzordea osatzen duten gizarte-eragileek hala eskatuta, prozedura kriminalaren legearen 277. artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz eta SALAKETA PARTIKULARRA den aldetik, prozedura kriminalaren legearen 100 eta 101. artikuluen babesean, kereila bat jarri zuen 2017ko uztailaren 18an, gizateriaren aurkako krimenak izan daitezkeen jokabideen inguruan, hain zuzen ere, gizateriaren aurkako ustezko krimen-delituak egiteagatik (Zigor kodearen 607 bis artikulua), gerra-krimenen delituagatik (Zigor kodearen 608.3 artikulua) eta gatazka armatuen kasuan babesturiko pertsona eta ondasunen aurka egindako delituagatik (Zigor kodearen 611.1 eta 613.1 artikuluak).

Bigarrena.- 2017ko uztailaren 19ko auto bidez, aipatutako kereila izapidetzea onartu da.

Hirugarrena.- 2017ko abuztuaren 2ko antolaketarako diligentzia bidez, 2017ko urriaren 3an berretsi behar da aurkeztutako kereila.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Durangoko Alkate andreak 2017ko uztailaren 18an Durangoko bonbardaketa Batzordeak eraginda kereila aurkeztu zuen Durangoko Epaitegietan; kereila eta salaketa partikularra den aldetik, Durangok jasan izan zituen bonbardaketen inguruko kereila, hain zuzen ere.

**CINCO.- RATIFICACIÓN DE LA PRESENTACIÓN DE QUERELLA INTERPUESTA EN FECHA 18 DE JULIO DE 2017 CONTRA LOS MIEMBROS DE LAS FUERZAS AÉREAS ITALIANAS DESTINADAS EN EL ESTADO ESPAÑOL DENTRO DE "OPERAZIONE MILITARE SPAGNA (OMS)" PARTICIPANTES DE LOS BOMBARDEOS, MATINAL Y VESPERTINO, DE DURANGO (BIZKAIA) EL 31 DE MARZO DE 1937.**

**Diligencias Previas 216/2017**

Primero.- La Alcaldesa-Presidenta de Durango, a instancia de los agentes sociales integrantes de la Comisión del Bombardeo de Durango, interpuso en fecha 18 de julio de 2017 querella, de conformidad con lo establecido en el artículo 277 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal y en el ejercicio de la ACUSACIÓN PARTICULAR, al amparo de lo establecido en los artículos 100 y 101 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, por las conductas susceptibles de ser tipificadas como crímenes contra la humanidad, en concreto, por la comisión de un presunto delito de lesa humanidad (art. 607 bis del Código Penal), delito de crímenes de guerra (art. 608. 3 del Código Penal) y delito contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado (artículos 611.1 y 613.1 del Código Penal).

Segundo.- Mediante Auto de 19 de julio de 2017 se admite a trámite la referida querella.

Tercero.- Mediante Diligencia de Ordenación de 2 de agosto de 2017 se señala el día 3 de octubre de 2017 para la ratificación de la querella presentada.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: El 18 de julio de 2017, la Alcaldesa de Durango, movida por la Comisión sobre el bombardeo de Durango, presentó una querella en el Juzgado de Durango. Se trata de una querella y denuncia particular, una querella sobre el bombardeo que sufrió Durango, concretamente.

2017ko uztailaren 19ko auto bitartez aipatutako kereila izapidetzea onartu zen, eta abuztuaren 2ko diligentzia batez 2017ko urriaren 3an berresteko beharra adierazten da.

El 19 de julio de 2017 la citada querella fue admitida a trámite, y el 2 de agosto, mediante diligencia, se solicita su ratificación el 3 de de Octubre de 2017.

Honen ondorioz bi proposamen dira udalbatzari aurkezten zaizkionak; alde batetik, Durangoko alkate andreak tartekatutako kereilaren aurkezpena berrestea eta, bestetik, alkate andrea baimentzea kereila bera berresteko.

A consecuencia de esto, presentamos dos propuestas a esta corporación municipal; por un lado, ratificar la presentación de la querrella interpuesta por la alcaldesa de Durango y, por otro lado, dar permiso a la alcaldesa para ratificar dicha querella.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* <u>Garate Mintegui jaunak (PP)</u>: Aipatu berri den bonbardaketaren Batzordeari dagokionez, ez dakigu zergatik ez gaituzten bilera edo asanbladetara gonbidatzen; eta, bonbardaketaren inguruko kereila berresteari dagokionez, Espainiak jasandako azken gerra zibila gure historia hurbilaren aldirik ilunenetako bat dela adierazi nahi dut; milaka pertsonak galdu zuten bizitza sekula gertatu behar izan ez zen gatazka zibil haren ondorioz. Durango ez zen liskar hartatik kanpo geratu, eta sufrimendua eta zigorra nagusitu ziren gure udalerrian.

* Concejal <u>Sr. Garate Mintegui (PP)</u>: Con respecto a la Comisión del bombardeo que se acaba de mencionar, me gustaría manifestar el desconocimiento de por qué no somos convocados a las reuniones o asambleas, y con respecto al tema de ratificar el bombardeo quisiera decir que la última guerra civil ocurrida en España forma parte de una de las partes más oscuras de nuestra historia reciente; fueron miles de personas las que perdieron la vida como consecuencia de un enfrentamiento civil que jamás tuvo que producirse. Durango no fue ajeno a esta contienda, y el sufrimiento y el castigo también fue protagonista en nuestro municipio.

Durangoko bonbardaketa gerraren ondorioetako bat izan zen eta, ondorio guztiek bezala, mina eta sufrimendua baino ez zituen eragin. Hortaz, ez dago arrazoirik Durangok duela 80 urte jasan zuen bonbardaketa modu esplizitu batean ez gaitzesteko. Egun haietan gertatutakoari garrantzia kentzeko asmorik gabe, bidezkoa da esatea Durangoko herritar askok, beren ideologia zela eta, zuzenean pairatu zituztela bando errepublikarraren ekintzak eta horiek ez dutela erakundeen aldetik inolako aitorpenik jaso.

El bombardeo que sufrió Durango fue consecuencia de una guerra que, como todas, no produce más que dolor y sufrimiento. Por tanto, no existe justificación para no realizar una condena explícita del bombardeo que sufrió Durango hace 80 años. Pero sin el ánimo de rebajar la importancia de los hechos ocurridos en aquellas fechas, también es de justicia reconocer que hubo vecinos de Durango, que por razón de su ideología, también sufrieron en primera persona las consecuencias de las acciones del bando republicano y que no han recibido ningún tipo de reconocimiento institucional.

Zorionez, trantsizioak eta demokraziak diktadurak iraun zuen 40 urtean zehar pilatutako gorrotoa baztertzeko eta zauriak ixteko balio izan zuten. Gure ustez, trantsizioan, Konstituzioan eta Parlamentuko talde gehienek onetsi-

Afortunadamente, la transición y la llegada de la democracia sirvieron para desterrar viejos odios acumulados durante 40 años de dictadura y que sirvieron para cerrar heridas enquistadas. Entendemos que el espíritu de con-

tako Amnistiaren Legean nagusitu ziren elkartasun eta berradiskidetzearen aldeko espirituak izan behar du, gaur egun ere, elkarbizitzarako oinarria.

Kontua ez da gertatutakoa ahaztea, hura gogoan izatea baizik, halakorik berriz gerta ez dadin. Oroimena mantendu beharra dago, ez bekaizkeria eta mendekuaren ikuspuntutik, gure sistema demokratikoaren zutabe nagusia den elkartasunetik eta berradiskidetze-espiritutik abiatuta baino.

Oroimen Historikoaren Legea izenez ezagutzen dena frankismoaren eta Gerra Zibilaren biktimak izandako eta, haien ustez, aitorpen nahikorik jaso ez dutenak konpentsatzeko sortu zen. 4. artikuluan, Gerra Zibilaren eta diktaduraren ondorioak jasan zituztenek ordaineko eta aitorpen pertsonaleko adierazpen bat jasotzeko eskubidea bermatzen da, zor lekiekeen kalte-ordainketaz gain.

Hortaz, talde honek artikulu horretara jotzen du, frankismoaren eta Gerra Zibilaren biktimen eskubideak aitortuak eta berrezarriak izan daitezen. Gaurko egunean, 2017ko irailaren 26an, nire iritzia emango dizuet: herritarrek diotenez, dirua kontu hauetan gastatzeak ez dakarkio inolako onurarik Durangori, eta gero agian Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, ibilgailuen zerga edo beste udal zerga batzuk igo beharko ditugu.

* <u>Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)</u>: Bitxia iruditzen zait Alderdi Popularra prozesu honen gastu txikiengatik kezkatzea eta gero Europako alderdi politikorik ustelena izatea eta bankuei, autobideei eta bestelakoei diru mordoa ematea eta, aldi berean, dirua honetan gastatzeak zergak igotzera behartuko gaituela esateko lotsarik ez izatea. Hau guztia duela 80 urte gertatu zela ere esan du; planteamendu horri buelta eman behar diogu, hau da, 80 urte behar izan ditugu era honetako kereila bat aurkeztu ahal izateko Durangaldeko herritarren aitorpena, egia eta oroimena bermatzeko.

cordia y de reconciliación impregnaron la transición, la Constitución y la Ley de Amnistía apoyada por la mayoría del arco parlamentario de aquel momento deben de ser los pilares sobre los que se asiente la convivencia, también hoy.

No se trata de olvidar lo que ocurrió; más bien se trata de tenerlo muy presente para que episodios como los acontecidos no vuelvan a repetirse, y se trata de mantener la memoria, pero no desde el rencor y la necesidad de ajustar cuentas, sino desde la concordia y el espíritu conciliador en que se ha basado todo nuestro sistema democrático.

La aprobación de la conocida como Ley de la Memoria Histórica se ha constituido en el marco nominativo destinado a compensar a todas aquellas personas que fueron víctimas del Franquismo y de la Guerra Civil y que consideren que no han sido suficientemente reconocidos. En su artículo 4 se reconoce el derecho a obtener una declaración de reparación y reconocimiento personal a quienes padecieron los efectos y las consecuencias de Guerra Civil y la dictadura, además de las indemnizaciones económicas que les pudieran corresponder.

Por tanto, desde este grupo, nos remitimos a la letra de dicha norma con el objetivo de que se reconozcan y se restituyan los derechos no compensados de las víctimas del Franquismo y de la Guerra Civil. A fecha de hoy, 26 de septiembre de 2017, daré una opinión: la ciudadanía ha dicho que si gastamos el dinero en estos asuntos que no van a dar ningún beneficio a Durango, igual luego tenemos que subir el impuesto del IBI, impuesto de vehículos, u otra serie de ingresos para el ayuntamiento.

* Concejal <u>Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)</u>: Me parece curioso que el Partido Popular se preocupe de unos gastos pequeños de lo que puede costar todo este proceso y luego sea el partido político más corrupto de Europa dando a mansalva dinero a bancos, autopistas y demás y no le tiemble el pulso al decir que vamos a gastar un dinero que nos va a subir los impuestos. También dice que todo esto paso hace 80 años; hay que darle la vuelta a eso, hemos tenido que tardar 80 años en poder llevar a cabo una querella de estas características para el reconocimiento, verdad y memoria de los durangueses.

Ideologiak, adina eta abarrak albo batera utzita, 300 pertsona hil ziren. Urteak daramatzate elkarte eta durangar askok prozesu hau abian jarri nahian. Hauxe bonbardaketaren inguruko batzordeak ezarritako hasierako helburua lortzeko tramite hutsa baino ez da. Alderdi Popularra batzorde horretara gonbidatua izan zen eta alderdi guztiek prozesu hau abiatzeko izenpetu genuen udal-adierazpenean parte hartu zuen. Adierazpen horren puntuetako batek halako gaietarako batzorde bat sortzea aurreikusten zuen.

Harrigarria iruditzen zait Alderdi Popularraren jarrera, espainiar estatua aurkitu gabeko hilobi gehien dituen herrialdea izanik Kanbodiaren atzetik. Lotsagarria iruditzen zait. Eta aitorpenari dagokionez, nire ustez pertsona guztiek, biktima guztiek merezi dute aitorpen bat, baina badira lehen eta bigarren mailako biktimak bereizten dituzten alderdiak; biktima batzuekin espantuka hasten gara, eta beste batzuekin aldiz… diktadurak iraun zuen 40 urtean zehar eta ustezko demokrazia ezarri zenetik igaro diren 40 urtean zehar bando nazioneko biktimek aitorpen etengabea jaso dute.

Izan ere, Oroimen Historikoaren legeari esker, kutsu frankista eta faxistako plaka guztiak kentzen ari gara. Beharrezkoa da oroitzea, argitzea eta, hemen zer gertatu zen eta zergatik gertatu zen jakiteko, ahal diren ikerketa guztiak egitea.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: EH Bilduren jarrera berrestearena izango da, hau da, aldeko bozka emango dugu. Alderdi Popularreko Bozeramaleak esan du ez duela ulertzen etekin ekonomikorik ematen ez digun ekimen bat zergatik jartzen den martxan eta hobe dela dirua beste gauza batzuetan gastatu; horren aurrean esan behar diogu politikan gauza guztiak ez direla etekin ekonomikoengatik edo irizpide ekonomikoekin egiten, askotan hemen defendatzen ditugu behar moral eta etikoak diren gauzak. Eta hau oso adibide argia da.

Murieron más de 300 personas independientemente de ideologías, edades, etc. Llevan muchos años un montón de asociaciones y durangueses y duranguesas queriendo llevar a cabo este proceso. Esto no es más que un trámite procesal necesario para seguir con el objetivo inicial que se marcó la comisión del bombardeo, una comisión a la que el Partido Popular también estuvo invitado y que ratifico en la declaración institucional que declaramos entre todas las fuerzas llevar a cabo este proceso; y es que uno de los puntos de esta declaración contemplaba la creación de una comisión para llevar estos asuntos.

Me parece increíble la postura del Partido Popular siendo el estado español el segundo país con fosas sin encontrar después de Camboya, me parece lamentable. Y en cuanto al reconocimiento, yo creo que todas las personas merecen un reconocimiento, todas las víctimas, porque hay partidos que determinan víctimas de primera y víctimas de segunda, con alguno nos rasgamos las vestiduras y creemos que es necesario dar un reconocimiento a todas las víctimas y las víctimas del bando nacional durante estos 40 años de dictadura y 40 supuestos años de democracia han tenido un reconocimiento permanente.

De hecho, parte de la memoria histórica lo que está llevando a cabo es quitar todas esas chapas de índole franquista y fascista. Es necesario recordar, esclarecer y que se hagan todas las investigaciones posibles para saber que ocurrió aquí y por qué ocurrió.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: La posición de EH Bildu será a favor de la ratificación, es decir, nuestro voto será favorable. El Portavoz del Partido Popular ha dicho que no comprende la razón de poner en marcha una iniciativa que no conlleva ningún beneficio económico y que sería mejor gastar el dinero en otros asuntos; frente a eso, le diré que en política no todo se realiza a cambio de un beneficio económico o en base a criterios económicos, y que en multitud de ocasiones defendemos aquí asuntos morales y éticos. Este es un ejemplo claro.

Badakit hilabetean behin idatzitakoa irakurtzeagatik 54.000 euro irabazten duen pertsona batentzat oso zaila dela hau ulertzea, baina batzuentzat etekin ekonomikoa ateratzeaz aparte badaude etikoki egin behar diren beste gauza batzuk ere. Biktimen inguruan ari garenean askotan esaten da egia, errekonozimendua eta erreparazioa zor zaiela eta horretarako lehenengo pausua egia jakitea da eta, hain zuzen ere, hori izan da ekimen honekin lortu nahi duguna; bonbardatu ondoren, altxamendua inposatu ondoren, isiltasuna inposatu zuen bando horrek, durangar askok ez dugu jakin benetan zer gertatu zen bonbardaketa horretan gerora kalean eragile batzuek ekimena eskuetan hartu zuten arte.

Hasieran, eragile horiek Kriskitin, Berbaro eta Gerediaga elkarteak izan ziren; bonbardaketaren inguruan ekimen batzuk antolatzen hasi ziren. Gero lekuko hori Durango 1936 Kultur Elkarteak hartu du eta kereilaren aurretik egindako lanketa guztia agerian utzi nahi izan du. Kereila bera beste urrats bat da egia zein den jakiteko; nork agindu zuen, zergatik agindu zuen populazio zibilaren kontra horrelako basakeri bat egitea. Beraz, gure behar morala eta etikoa delako uste dugu kereila honekin aurrera jarraitu behar dugula.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Nire Taldearen izenean nik hitz egingo dut. Politikarioi behin baino gehiagotan tokatzen zaigu pedagogia lanetan aritzea. Ez gara pedagogoak, baina gure lan zabal honetan batzuetan komenigarria izaten da azalpenak ematea eta irudi bat ematea. Kasu honetan zein da adierazi nahi dugun pedagogia? Adierazi nahi dugun pedagogia da justizia bilatzea, eta nire taldeak uste du, eta Gobernu Taldeak ere, justizia bilatzea ez dela egun bateko kontua, ez dela talde politiko baten ondarea baizik eta herritar ororen ondarea izango litzatekeela.

Eta hori da kereila honekin eskatzen duguna, justizia egitea, besterik ez. Entzun izan dut "ajustar cuentas", "rencor"... ez, justizia da eskatzen duguna. Eta non eskatzen da justizia egitea? Epaitegietan. Ez dugu mendekurik

Ya sé que para alguien que cobra 54.000 euros por leer lo escrito una vez al mes es muy difícil entenderlo, pero a veces, al margen del beneficio económico, hay otros asuntos que deben llevarse a cabo por motivos éticos. Cuando hablamos sobre las víctimas, a menudo se dice que les debemos verdad, reconocimiento y reparación y que el primer paso para ello es conocer la verdad. Eso es lo que queremos lograr a través de esta iniciativa; tras el bombardeo, tras imponer su levantamiento, tras el silencio impuesto por dicho bando, muchos durangueses no hemos sabido realmente lo sucedido en dicho bombardeo hasta que algunos promotores se hicieron cargo de esta inciativa.

En un principio, los promotores fueron Kriskitin, Berbaro y la asociación Gerediaga; comenzaron organizando algunos actos sobre el bombardeo. Posteriormente tomó el testigo la asociación cultural Durango 1936, quienes han sacado a relucir todo el trabajo realizado con anterioridad a la querella. La propia querella es un paso más hacia el conocimiento de la verdad; quién dio la orden y por qué ordenó semejante atrocidad contra la población civil. Por lo tanto, creemos que nuestro deber moral y ético es continuar con dicha querella.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hablaré en nombre de mi Grupo. A todos los políticos nos ha tocado en más de una ocasión realizar labores pedagógicas. No somos pedagogos, pero en esta profesión tan amplia a veces conviene dar explicaciones y ofrecer una imagen. En este caso, ¿cuál es la pedagogía que queremos dar a conocer? Esa pedagogía implica la búsqueda de la justicia y tanto mi grupo como el Equipo de Gobierno creemos que la búsqueda de la justicia no es asunto de un solo día, no es patrimonio de un solo partido, sino de todos los ciudadanos.

Eso es lo que solicitamos con dicha querella, hacer justicia, nada más. He oído términos como "ajustar cuentas", "rencor"... No, es justicia lo que pedimos. ¿Y dónde se solicita justicia? En los juzgados. No pedimos ven-

eskatzen, ez dugu inongo gorrotorik mahaigaineratzen, eskatzen duguna justizia da. Eta dirua gastatzen badugu ekimen honetan da duintasuna berriz ere mahai gainean jartzeak dirua kostatzen duelako. 40 urteko demokrazian eta beste 40 urteko diktaduran duintasun hori zapaldua izan zen; ez bakarrik herritarrena, gure herriarena ere bai, Durangoko duintasuna zapaldua izan zen. Gastatzen dugun dirua herritar guztien eta gure herriaren duintasuna berreskuratu ahal izateko gastatzen dugu.

Honen inguruan hitz egiten dugun bakoitzean niri beti etortzen zaizkit gogora nire aitona-amonak; eurek kontatutako bonbardaketan, eurek bizi izandako bonbardaketan beti sumatu izan dut beldurra, isiltasuna, lotsa, eta horrekin guztiarekin amaitzeko ordua heldu da. Beraiek ez dute ikusiko, baina bai ondorengoek; beraz, ahalegina egitea beti da onuragarria duintasunari bere lekua eman ahal izateko.

* <u>**Garate Mintegui jaunak (PP)**</u>: Ez zait argi geratu zergatik batzuk bilera batzuetara gonbidatzen dituzten, eta beste batzuk ez. Pentsatzen dut hitz egiteko eta elkarri batzuen eta besteon eskubide ezberdinen inguruko azalpenak emateko astia izango dugula. Nik Durangoko herritarrek gu ez gaituztela gonbidatzen jakitea nahi dut.

Kereilaren aurkezpenak eta prozesu hau abian jartzeak onura ekonomiko bat ekarri behar digula aipatu da, eta nik kostu bat izan dezakeela onartzen dut, baina aipatu dudan moduan, 80 urte igaro dira jada eta arduradunek 100 urte inguru izango dituzte. Munduko herritar guztiek bezala, Durangon 1937an gertatutakoa gaitzesten dut.

* 1. Alkate ordea <u>**Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**</u>: Udal honetan ordezkapena duten alderdi gehienek esan duten bezala, oroimena eta justizia eskatzen dugu. Batez ere, bonbardaketan hildako 336 pertsona horien izenean aurkezten dugu eskaera.

Argi dugu, kereilarik ezean, ez dela ikerketa judizialik izango eta, hortaz, egia historikorik ere ez. Garrantzitsua iruditzen zaigu gaur ema-

ganza, no ponemos sobre la mesa ninguna clase de odio, sino que pedimos justicia. Y si gastamos dinero en esta iniciativa es porque reinstaurar la dignidad cuesta dinero. En 40 años de democracia y otros 40 años de dictadura esa dignidad ha sido pisoteada; no solo la de los ciudadanos, también la de nuestro municipio. La dignidad de Durango fue pisoteada. Si gastamos dinero es para poder devolver al municipio de Durango y a sus ciudadanos la dignidad.

Cada vez que tratamos este tema siempre me vienen a la mente mis abuelos; en su relato del bombardeo, que vivieron en primera persona, siempre he percibido temor, silencio, vergüenza, y ha llegado la hora de terminar con todo eso. Ellos no lo verán, pero sí sus descendientes; por lo tanto, hacer un esfuerzo siempre es beneficioso para devolver la dignidad al lugar que le corresponde.

* Concejal <u>**Sr. Garate Mintegui (PP)**</u>: Con respecto a por qué unos podemos tener unas convocatorias y otros no, no me ha quedado claro. Supongo que tendremos momentos de poder hablar y de explicarnos porqué algunos tienen derecho y otros no; yo quiero que Durango sepa que por el momento nosotros no somos convocados.

Con respecto a que la presentación de esta querella y el inicio de este proceso nos tiene que dar un beneficio económico, creo que no he mencionado nada; estoy hablando de que puede tener un coste, lo único que he comentado es que han pasado 80 años y la verdad es que las personas contra las que se está actuando tendrán unos 100 años. Vuelvo a condenar como todos los ciudadanos del mundo lo que ocurrió en Durango en 1937.

* 1ª Tnte. de Alcalde <u>**Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**</u>: Tal y como han dicho la gran mayoría de las fuerza políticas con representación en este ayuntamiento, lo que reclamamos es memoria y justicia, y sobre todo la reclamamos por esas 336 personas que murieron en el bombardeo.

Tenemos claro que si no hay querella no hay investigación judicial, y, por tanto, tampoco

ten ari garen pausoa, eta aldeko botoa emango dugu.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Aukera hau baliatu nahi dugu, egia, ordaina eta justizia bilatzeko asmoz, oroimenaren inguruko elkarteak, Durangoko gainerako elkarteek, senideek eta bonbardaketari buruzko Batzordeak urte luzean zehar egindako lana aitortzeko.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Txanda bukatzeko eta deialdien kontu hori argitzeko, esango dut lehenengo deialdia denei bidali zitzaiela, hain zuzen ere gure museoan egindako batzar hartara denok egon ginen gonbidatuta eta deituta, eta ordutik aurrera bertan jasotako emailen zerrendei bidaltzen zaie deialdia.

Bitxia egiten zait Alderdi Popularreko ordezkariak etorri izan delako ekitaldi batzuetara bai eta beste batzuetara ez, batzorde horrek antolatutako ekitaldiak izanez denak.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HOGEI (8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra).
- Kontrako botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hauxe erabaki du:

**Lehena**.- Durangoko alkatete andreak, Durangoko bonbardaketa batzordea osatzen duten gizarte-eragileek hala eskatuta, 2017ko uztailaren 18an tartekatutako kereilaren aurkezpena berrestea.

habrá verdad histórica. Nos parece importante el paso que hoy damos y votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Utilizamos este espacio para reconocer el trabajo de años de las asociaciones memorialistas y resto de asociaciones de Durango, familiares y a la Comisión del bombardeo con el objetivo de buscar verdad, reparación y justicia.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Para cerrar este turno de palabra y aclarar el asunto de las convocatorias de reunión, he de decir que la primera convocatoria se os envió a todos. Todos fuimos invitados y convocados a aquella reunión realizada en nuestro museo y, a partir de entonces, se envían las convocatorias a todos los que aparecen en el listado de mails que allí se elaboró.

Me resulta curioso, ya que los representantes del Partido Popular han asistido a algunas de las reuniones, habiendo sido todas organizadas por dicha comisión. Procedemos a votar.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: VEINTE (8 Partido Nacionalista Vasco, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea y 2 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra).
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**Primero**.- Ratificar la presentación de la querella presentada por la Alcaldesa-Presidenta de Durango, a instancia de los agentes sociales integrantes de la Comisión del Bombardeo de Durango interpuso en fecha 18 de julio de 2017.

**Bigarrena**.- Durangoko alkate andreak 2018ko uztailaren 18an jarritako kereila berrestea onartzea, alegia, 1937ko martxoaren 31n Durangon (Bizkaia) goiz eta arratsaldean eragindako bonbardaketetan parte hartu zuten Estatu Espainiarrean destinatuta zeuden aire armada italiarra osatu zuten "Operazione Militare Spagna (OMS)"-eko kideen aurka.

**Segundo**.- Autorizar a la alcaldesa para la ratificación de la querella interpuesta en fecha 18 de julio de 2017 contra los miembros de las fuerzas aérea italianas destinadas en el Estado Español dentro de "Operazione Militare Spagna (OMS)" participantes de los bombardeos, matinal y vespertino, de Durango (Bizkaia) el 31 de marzo de 1937.

**SEI.- HERRIAREN ESKUBIDEA TALDEAREN MOZIOA, DURANGOREN AIREAREN KALITATEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2017006705, 2017KO IRAILAREN 19KOA.**

Herriaren Eskubidea Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Durangoren airearen kalitateari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2017006705, 2017ko irailaren 19koa, eta honako hau dioena:

*"2017. urtea ez da urterik onena Durangon usainei erreparatzen badiegu. Durango ezaguna da bere "usainak" direla eta, ez oso atseginak egia esan, baina azkenaldi honetan usaina aldatzen ari da: ez gara usain motaz bakarrik ari, kontua da usaina geroz eta handiagoa dela, eta are larriagoa dena, arazoak eragiten ditu begi, sudur eta eztarriak urratuz.*

*Herritarrak arduratuta daude egoera honen aurrean. Durangar askok eta askok jakinarazi digute kezkatuta daudela. Are gehiago, durangar batek orrialde bat ireki du www.change.org helbidean sinadurak biltzeko. Dagoeneko 2.500 sinadura baino gehiago bildu ditu, eta honek adierazten du durangarrok kezkatuta gaudela arazo honek hartu duen tamainaz.*

*Jakin badakigu Durangoko udaleko garapen jasangarriko arduradunak kexak igorri zituela Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailari. Era berean, airearen kalitate-zerbitzuak ere baieztatu zuen antzeko kexak jaso dituztela Durangaldeko beste hainbat udalerritatik. Nolanahi ere, jakinarazi ziguten azaroa arte ez dutela inguru honetan egin asmo dituzten ekintzen berri emango.*

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO HERRIAREN ESKUBIDEA, RELATIVA A LA CALIDAD DEL AIRE DE DURANGO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017006705, DE 19 DE SETIEMBRE DE 2017).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Herriaren Eskubidea, relativa a la calidad del aire de Durango, con Registro de Entrada nº 2017006705, de 19 de Setiembre de 2017, del tenor literal siguiente:

*"Este año 2017 no se está caracterizando por ser un buen año en términos de olores en Durango. Ya de por sí, Durango es conocido por sus "olores" no especialmente agradables pero en los últimos tiempos, además, este olor está cambiando, no solo el tipo de olor, sino que también se está volviendo más fuerte, incluso provocando problemas de irritación en ojos, nariz, garganta.*

*La ciudadanía está preocupada por esta situación, son numerosos vecinos y vecinas las cuales han trasladado esta preocupación durante todo el año, una vecina incluso ha abierto una página en www.change.org para recoger firmas, recogiendo más de 2.500 firmas, dando cuenta de la magnitud de la preocupación en la ciudadanía duranguesa.*

*Nos consta que desde el Ayuntamiento de Durango, el Responsable de Planificación Sostenible remitió las quejas de la ciudadanía al Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco y desde el servicio de calidad del aire confirmo que se habían recibido quejas similares de otros municipios de Durangaldea pero a la vez comentaron que hasta noviembre no nos dirían algo sobre las acciones a llevar a cabo en esta zona.*

*Hortaz, arazo larri eta garrantzitsu baten aurrean gaude. Horrexegatik, uste dugu udalbatzak eskatu behar duela aipatutako azterketa horiek lehenbailehen egin daitezela, gehiago atzeratu barik, herritarren osasunean izan dezakeen inpaktua handia izan daitekeelako.*

- *Durangoko udalak Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailaren menpe dagoen airearen kalitate zerbitzuari eskatu diezaiola azterketa bat egin dezala usain txarren arrazoiak eta jatorria zehazteko, eta, aldi berean, Durangoko udalarekin batera, dagozkion neurri zuzentzaileak hartu ditzala.*
- *Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailak, epe laburrean, 1. puntuko eskaria beteko ez balu, Durangoko Udalak konpromisoa hartzen du dagozkion ingurumen-azterketak egiteko usain hori nondik datorren jakiteko.*
- *Eusko Jaurlaritzako ingumen sailaren menpe dagoen airearen kalitate zerbitzuari eskatzea San Roken dagoen estazioa errebisatu dezala, ez baitago datu-bilketaren daturik zenbait ordutan, ezta 0 isurketen neurketarik puntako orduetan, normala ez dena PM2.5 delakoetan; era berean, gogoratu beharra dago era honetako isurketak, neurri txikikoak izanik, kaltegarriagoak direla osasunarentzat.*
- *Durangoko Udalak eta ingurumen sailak, hilabeteko epean, protokolo bat adostuko dute Ingurumen-baimen bateratua eta Jarduera-lizentzia behar dituzten jarduerak aztertu eta jarraipena koordinatzeko. Helburua da zehaztea isuri, hondakin eta zaratei buruzko neurri zuzentzaileak nori dagokion betearaztea eta zelan egin behar den.*
- *Durangoko Udalak mahaia bat eratzeko konpromisoa hartzen du Ingurumen-baimen bateratua egitea derrigorra duten jardueren jarraipenerako. Helburua da, batetik, hartutako neurri zuzentzaileen gaineko*

*Ante esto creemos que el problema es suficientemente serio e importante para solicitar desde toda la corporación que esos estudios sobre el aire se hagan de una manera inminente y no se demoren en el tiempo por el impacto que podría tener en la salud de la ciudadanía.*

1. *El Ayuntamiento de Durango solicite al Servicio de Calidad del Aire del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco que haga un estudio exhaustivo para determinar las causas de los malos olores y su procedencia así como establecer junto al ayuntamiento de Durango las medidas correctores oportunas.*
2. *En el caso de que el Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco, a corto plazo, no lleve a cabo la petición del punto 1, el Ayuntamiento de Durango se compromete a llevar los estudios ambientales pertinentes para determinar la procedencia de este olor.*
3. *Solicitar el Servicio de calidad del aire del departamento de medio ambiente de gobierno vasco la revisión de la estación ubicada en San Roke, debido a la falta de recogida de datos en horarios puntuales y mediciones de 0 emisiones en horas punta, algo improbable en las PM2,5, recordando que este tipo de emisiones por su menor tamaño son más perjudiciales para la salud.*
4. *El ayuntamiento de Durango y la consejería de medio ambiente establecerán en el plazo de 1 mes, un protocolo para la coordinación de las labores de inspección y control de aquellas actividades sujetas a Autorización Ambiental Integrada y Licencia de Actividad, en aras a establecer cómo y quién, es el responsable de hacer un seguimiento al cumplimiento de las medidas correctoras en materia de emisiones, vertidos, residuos y ruidos.*
5. *El ayuntamiento de Durango se compromete a crear una mesa de seguimiento de las actividades clasificadas sometidas a Autorización Ambiental, para dar cuenta a la ciudadanía del seguimiento de las me-*

*kontu ematea herritarrei eta, bestetik, durangarrei galdetu eta iritzia eskatzea neurriok betetzen diren eta zertan hobetu edo zuzendu daitezken jakiteko."*

*didas correctoras y para recabar la opinión de la ciudadanía sobre el cumplimiento de las mismas y posibles mejoras o correcciones."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Airearen kalitatearen inguruko mozio bat dakarkigu, herritarrak kezkatzen dituen gaia delako. Hona ekarri nahi izan ditugu ezinegon hori eta herritarren proposamenak.

2017. urte hau ez da urte ona izan Durangon usainei dagokienez. Durango betidanik bere "usain" ez bereziki atseginengatik ezaguna izan da, baina azken boladan, horrez gain, usain hori aldatzen ari da, ez soilik usain mota, haren intentsitatea ere handitu da, begietan, sudurrean edo eztarrian narritadura eragiteraino.

Herritarrak kezkatuta daude egoera honengatik, asko dira kezka honen berri eman diguten auzokideak. Horietako batek orrialde bat abiatu du www.change.org webgunean sinadurak jasotzeko; dagoeneko 2.500 sinadura bildu ditu, Durangoko herritarren kezkaren neurria erakutsiz.

Badakigu Durangoko Udaleko Plangintza Iraunkorreko arduradunak herritarren kexak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailera bidali zituela, eta Airearen Kalitate Zerbitzuak onartu egin zuen antzeko kexak jaso zituela Durangaldeko beste herri batzuetatik, baina, aldi berean, azarora arte eremu honetan burutu beharreko ekintzei buruzko ezer komentatuko ez zigutela komentatu zuten.

Horren aurrean, arazoa udalbatzak ikerketa horiek berehala egin daitezen eta gehiago atzeratu ez daitezen eskatzeko bezain serioa eta garrantzitsua dela uste dugu, herritarren osasunean izan lezakeen eragina dela eta.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Traemos una moción con el tema del aire, que responde a una preocupación importante que hay en la ciudadanía. Simplemente hemos querido recoger ese malestar y las propuestas ciudadanas para traerlo a este espacio.

Este año 2017 no se está caracterizando por ser un buen año en términos de olores en Durango. Ya de por sí, Durango es conocido por sus "olores" no especialmente agradables, pero en los últimos tiempos, además, este olor está cambiando, no solo el tipo de olor, sino que también se está volviendo más fuerte, incluso provocando problemas de irritación en ojos, nariz, garganta...

La ciudadanía está preocupada por esta situación, son numerosos vecinos y vecinas las cuales han trasladado esta preocupación durante todo el año, una vecina incluso ha abierto una página en www.change.org para recoger firmas, recogiendo más de 2.500 firmas, dando cuenta de la magnitud de la preocupación en la ciudadanía duranguesa.

Nos consta que, desde el Ayuntamiento de Durango, el Responsable de Planificación Sostenible remitió las quejas de la ciudadanía al Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco y desde el servicio de calidad del aire confirmo que se habían recibido quejas similares de otros municipios de Durangaldea pero a la vez comentaron que hasta noviembre no nos dirían algo sobre las acciones a llevar a cabo en esta zona.

Ante esto, creemos que el problema es suficientemente serio e importante para solicitar desde toda la corporación que esos estudios sobre el aire se hagan de una manera inminente y no se demoren en el tiempo, por el impacto que podría tener en la salud de la ciudadanía.

Horregatik, hau eskatzen dugu:

1. Durangoko Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Airearen Kalitate Zerbitzuari eskatzea usain txarren kausak eta haren jatorria zehazteko eta Durangoko Udalarekin batera dagozkion neurriak ezartzeko ere.

2. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak 1. puntuko eskaerari epe laburrean bide emango ez balio, Durangoko Udalak dagozkion ingurumen-ikerketak egiteko konpromisoa hartzen du, usain horren jatorria zehazteko.

3. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Airearen Kalitate Zerbitzuari San Roken kokatutako geltokia berrikusteko eskatzea, ordu jakin batzuen inguruko daturik bildu ez delako eta une jendetsuenetan inolako isuririk hautematen ez delako, 2,5 mikropartikulen kasuan batere ohikoa ez dena; gainera, kontuan izan beharra dago isuri mota hauek osasunerako kaltegarriagoak direla beren tamaina txikiagatik.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Gai mediatikoa da, zalantzarik gabe, mozio populista da hauxe. Durangon usain txarra dago beti, edo ez hain txarra, agian Iurretan kokatutako paper-fabrikaren eraginez. Egia da azkenaldian usain desatseginak hautematen direla eta hori hizketagai arrunta bihurtu dela etxeetan, kuadrillan, txokoetan... baina horrek ez du esan nahi usain txarra airearen kalitate txarraren ondorio denik. Hala azaldu digu Teknikariak Garapen Iraunkorreko batzordearen azken bileran, ez dakarrela arriskurik herritarrentzat.

Hori esan eta gero, usain txarra eragozpen bat dela uste dugu eta, beraz, jatorria ikertu beharreko arazo bat. Osoko bilkura honetan mozio baten inguruan eztabaidatuz ez ditugu eman beharreko pausoak arinduko eta, gure

Por ello solicitamos que:

1. El Ayuntamiento de Durango solicite al Servicio de Calidad del Aire del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco que haga un estudio exhaustivo para determinar las causas de los malos olores y su procedencia, así como establecer junto al ayuntamiento de Durango las medidas correctores oportunas.

2. En el caso de que el Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco, a corto plazo, no lleve a cabo la petición del punto 1, el Ayuntamiento de Durango se compromete a llevar los estudios ambientales pertinentes para determinar la procedencia de este olor.

3. Solicitar al Servicio de Calidad del Aire del Departamento de Medio Ambiente de Gobierno Vasco la revisión de la estación ubicada en San Roke, debido a la falta de recogida de datos en horarios puntuales y mediciones de cero emisiones en horas punta, algo improbable en las micropartículas 2,5, recordando que este tipo de emisiones por su menor tamaño son más perjudiciales para la salud.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Tema mediático, sin duda, moción populista. En Durango siempre huele mal, o no tan mal, quizá por la papelera, empresa ubicada en Iurreta. Es cierto que últimamente se detectan unos aromas desfavorables y han supuesto una conversación al respecto en cada casa, en cada cuadrilla, txoko... pero esto no significa que mal olor sea equivalente a mala calidad del aire; nos lo ha explicado el técnico del Ayuntamiento en la última comisión de Desarrollo Sostenible, y no significa riesgo para la ciudadanía.

Dicho esto, creemos que el mal olor es una molestia, y como tal, un problema al que hay que buscarle el origen, su foco. Porque tratemos una moción en este pleno no se aceleran los pasos, y entendemos que la

iritzian, Bulego Teknikoa, egoeraren jabe dena, zuzen jokatzen ari da.

Oficina Técnica, consciente de esta circunstancia, está actuando correctamente.

Herritarrek esango digute, beren botoen bidez, ondo ala gaizki jokatzen ari garen; hemen herritarren zati bat ordezkatzeko gaude, zuek zazpi zarete eta ni bakarra, eta, hortaz, zuek hobeto egiten ariko zarete.

Eskertzen dizut batzordean arreta handiagoa jartzeko gomendioa, eta gauza bera aholkatzen dizut.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Querría saludar a las palabras que me ha dirigido el Portavoz de EH Bildu en cuanto a la atención y compresión que debemos de tener en nuestras asistencias a las comisiones. Creo que quizá fue Bildu quien no entendió que la ordenanza no estaba todavía vigente y que quizá un ciudadano pudo estar mal informado de que tenía posibilidad de acudir a todo el pleno.

Si nuestro proceder es mejor o peor, simplemente va a ser valorada por los votantes; aquí estamos representando a un número de la ciudadanía, ustedes están 7 y yo 1, y en consecuencia lo deben de estar haciendo mejor.

Yo le agradezco las indicaciones de que tengo que estar más atento en las comisiones, yo le indico que también usted tiene que estar más atento.

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza · Secretaría

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**: Nahiko genuke Gobernu Taldeak azaltzea orain hitza hartzeko daukan azkeneko txandan, zein den benetan jatorrizko mozioa eta alternatiboaren arteko desberdintasuna; ez dut argi ikusten.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gu, normalean, serioak gara eta egin duguna da jatorrizko mozio gehiago zehaztu, eskakizunak hobeto zehaztu, lege-esparruaren barruan egin daitezela. Guk gure forma eman diogu legearen barruan gauzak zehazkiago konkretatuta.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Mozioa irakurrita eta alde handirik ez dagoela ikusita, biak mozio bakarrean uztartu daitezkeela uste dugu, ondo baderitzozue. Gu ere serioak izan ohi gara eta posible dela uste dugu. Legearen barruan txertatzeko beharrezkoa bada, ados gaude mozio bakarrean uztartzearekin. Eskertzen dizkiogu Idazkari jaunari eskaini dizkigun azalpenak eta bi mozioak uztartzeko proposamena mantentzen dugu.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bost minutuko etenaldia egingo dugu hau guztia eztabaidatzeko.

--------

Adostasun batera heldu gara eta bateratu egin ditugu mozio biak, baimena daukat denon izenean irakurtzeko zelan geratzen den behin betiko testua. MOZIO BATERATUA IRAKURTZEN DU:

*"Durangoko Udalbatzak, TAO zerbitzuaren esleipenari dagokionez, ondokoa adostu du, Herritarren Partehartze Erregelamendua zein ezarri beharreko legeria kontuan hartuta:*

1. *Prozesu ireki bat egiteko konpromisoa herritarrekin batera baldintza plegu berria eta klausulak aztertzeko eta prestatzeko, Administrazio kontratazioaren esparruan indarrean dagoen araudia errespetatuz,*

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: Nos gustaría que el Equipo de Gobierno explicara ahora, en su último turno de palabra, cuál es en realidad la diferencia entre la moción original y la moción alternativa; no lo veo claro.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros, normalmente, somos serios y lo que hemos hecho ha sido concretar mejor la moción original, adecuándolo a la ley. Hemos pretendido darle forma dentro de la ley, concretándola aún más.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Leyendo la moción y visto que no hay demasiadas diferencias, creemos que se pueden fusionar en una sola moción, si creen que es posible. Nosotros también solemos ser serios al respecto, y creemos que es posible, y si es necesario para dar el marco legal adecuado, estaríamos de acuerdo en que se fusionara en una sola moción. Agradecemos al señor Secretario las explicaciones que nos ha ofrecido y mantenemos la pregunta de si se pueden fusionar o no.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Haremos una pausa de cinco minutos para debatir este asunto.

--------

Hemos llegado a un acuerdo para fusionar ambas mociones y tengo permiso para leer el texto definitivo en nombre de todos. PROCEDO A LEER LA MOCIÓN UNIFICADA:

*"El Pleno del Ayuntamiento de Durango, en relación a la próxima licitación del servicio de la OTA, y tomando en consideración el Reglamento de Participación Ciudadana así como la legislación aplicable, acuerda lo siguiente:*

1. *Se compromete a realizar un proceso abierto a la ciudadanía para el estudio y confección de las cláusulas del nuevo pliego de condiciones con respeto a la normativa en vigor en materia de contratación administrativa, al objeto de*

*esparru juridikoak hala ahalbidetzen dituen gaiak aztertzeko asmoz.*

2. *Garapen Jasangarri eta Herritarren Partehartze Batzordeari partehartze prozesu egokia ezartzeko eta, gutxienez, horren inguruko Foro berezia antolatzeko ardura ematea*."

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, onartzen du lehen transkribatutako mozioko testua, Herriaren Eskubidea-k hasiera batean aurkeztutakoaren eta Gobernu-Taldeak aurkeztutakoaren artean adostuta.

*analizar aquellas cuestiones que el marco jurídico así lo permita.*

2. *Encomendar a la Comisión de Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana la articulación del proceso de participación correspondiente con especial incidencia en la convocatoria de al menos un Foro específico al efecto*."

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, aprueba el texto de la moción anteriormente transcrita, consensuada entre la inicialmente presentada por Herriaren Eskubidea y la presentada por el Equipo de Gobierno.

**ZORTZI.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, KATALUNIAKO ERREFERENDUMARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2017006698, 2017KO IRAILAREN 19KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Kataluniako Erreferendumari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2017006698, 2017ko irailaren 19koa, eta honako hau dioena:

*"Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.*

*Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da*.

*1.- Durangoko Udalak, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarron borondatea da*

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL REFERÉNDUM DE CATALUÑA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017006698, DE 19 DE SETIEMBRE DE 2017).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal de Euskal Herria Bildu, relativa al Referéndum de Cataluña, con Registro de Entrada nº 2017006698, de 19 de Setiembre de 2017, del tenor literal siguiente:

*"En el marco de un proceso de largos años, y abriendo las puertas a la demanda de una mayoría de la ciudadanía, el pueblo de Cataluña se ha dotado de recursos democráticos para poder decidir libremente su futuro. La principales instituciones de Cataluña han decidido firmemente dar paso a la voluntad de la ciudadanía.*

*Los pasos que se han dado en Cataluña con el apoyo de la voluntad de la ciudadanía, han sido contrarrestados desde Madrid con la supuesta razón de la fuerza, del desprecio y de leyes obsoletas*.

*1.- El Ayuntamiento de Durango reconoce la total legitimidad del referéndum que el Parlamento de Cataluña desea llevar a cabo. Y es que la voluntad de la ciudadanía libremente expresada constituye el instrumento político*

*tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.*

*2.- Durangoko Udalak, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.*

*3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.*

*4.- Durangoko Udalak, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.*

*5.- Durangoko Udalak urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.*

*6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Une historikoa ari dira bizitzen Katalunian, unea politika maiuskulaz egiteko eta aldi berean hiritar iraultza bat. Aspalditik dator haserrea Katalunian, haserrea eta deskonexioa, eta gaur egun, gehiengo zabal batek independentziaren alde egin nahi du, zerotik hasi, estatu berri bat eraiki

*más eficaz para la construcción del futuro de cualquier pueblo o colectivo.*

*2.- El Ayuntamiento de Durango denuncia y rechaza el ataque del estado español contra las decisiones soberanas del pueblo de Cataluña y del Parlament. Porque el Gobierno de Madrid, los tribunales y el Tribunal Constitucional no pueden estar por encima de la voluntad democrática expresada por una amplia mayoría de la ciudadanía de Cataluña.*

*3.- Rechazamos rotundamente llamar a declarar a alcaldes democraticamente elegidos por los ciudadanos de Cataluña. Nos oponemos a la imputación de los alcaldes catalanes que quieren poner en práctica un derecho democrático.*

*4.- El Ayuntamiento de Durango se compromete a apoyar los procesos políticos que se desarrollen basados en la libre voluntad de sus ciudadanos en Euskal Herria, en Cataluña o en los demás pueblos del mundo.*

*5.- El Ayuntamiento de Durango respeta y pide respetar los resulatados de referendum del 1 de octubre a las distintas instituciones y organismos. Para ello, se resuleve dar cuenta de esta resolución a la presidenta del Parlament de Cataluña, al presidente del Gobierno de Espña y al presidente del Tribunal Constitucional, asi como a la ciudadanía de nuestro municipio.*

*6.- Se aprueba que la estelada ondee en el balcón del ayuntamiento hasta la celebración de la consulta del 1 de octubre, como muestra de apoyo al pueblo catalán y a sus instituciones*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: En Cataluña están viviendo momentos históricos, un momento para hacer política con mayúsculas y, al mismo tiempo, llevar a cabo una revolución ciudadana. El enfado en Cataluña viene de lejos, el enfado y la desconexión, y a día de hoy una amplia mayoria apuesta por la independencia, por empezar de cero, crear un

eta dena erabaki zerotik. Gehiengo zabal bat dago horren alde, aurreko hauteskundeetan %48a izan zen. Zenbat diren jakiteko logikoena eta biderik onena erreferendum bat egitea da. Eta horrela erabaki du Kataluniako parlamentuak, eta erreferendum hori guztiz zilegia da, demokratikoa da eta baditu berme guztiak; lortzen ez baditu, ez da izango gobernuaren ardura, baizik eta Espainiako gobernuak etengabe oztopoak jartzen dituelako. Benetan auzolotsa sentitu dugu gure lehendakariak horrelako adierazpenak egin dituenean; adierazpen horiekin jarri da PP, Ciudadanos eta PSOEren parean.

Guztiz zilegia izan arren, estatuaren erantzuna kontrakoa izan da; erantzuna errepresioa izan da, Turkiaren bidea hartu du, inprimategiak eta hedabideetan miaketak egin, webguneak itxi, gobernukideak atxilotu, inbasio militarra. Orain dela minutu batzuk, Durangoko bonbardaketaren inguruan ari izan garenean, "espíritu conciliador" moduko hitzak erabili dira. Horra hor bake-nahia, Katalunia militarrek inbaditzea hautetsontzien eta boto-txartelen bila. Zenbait alderditan, eskuin espainiarrak berdin jarraitzen du, betidanik hain berezkoa izan duen faxismo zikin eta narras horrekin, barrea eragingo lukeena batzuetan beldurgarria delako ez balitz.

Beraz, lehen eztabaida bazen independentzia bai ala ez, gaur egun bestelakoa da, eskubide demokratikoen aldekoa; hau da, independentziaren eztabaida Katalunian eta estatu osoan eskubide demokratikoen defentsarako eztabaida betean bihurtu da, eta horrek erantzun tinko bat behar du. Kataluniako gizarteak eman du erantzun hori. Horregatik uste dugu babes osoa erakutsi behar diogula Kataluniako herriari, parlamentuari, inolako aitzakiarik gabe eta bozkatzeko eskubidea defendatuz.

Eusko Jaurlaritzak esan du igandean ez dela Katalunian egongo erreferendumari babesa ematen; guk gure ekarpen txikia egingo dugu eta EH Bilduko bost zinegotzi bertara joango gara behaketa eta laguntza lanak egitera.

estado y comenzar de cero. Hay una amplia mayoria a favor de ello, que en las pasadas elecciones estaba formado por un 48 %. El mejor sistema y el más lógico para cuantificarlos es celebrar un referendum. Así lo ha decidido el parlamento de Cataluña, y dicho referendum es completamente legítimo, democrático y cuenta con todas las garantías; si no lo consigue, no será responsabilidad del gobierno catalán, sino a causa de los continuos obstáculos que está imponiendo el gobierno de España. Sentimos vergüenza ajena ante las declaraciones del lehendakari; sus palabras lo llevan a posicionarse al lado de PP, Ciudadanos y PSOE.

A pesar de ser totalmente legítimo, la respuesta del estado ha sido contraria; han respondido con represión, tomando el camino de Turquía, registrando imprentas y medios de comunicación, cerrando sitios web, deteniendo a miembros de la Generalitat o realizando una invasión militar. Hace unos pocos minutos, cuando estábamos tratando el tema del bombardeo de Durango, se han utilizado términos como "espíritu conciliador". Aquí tenemos el espíritu conciliador con una invasión militar a Cataluña para perseguir urnas y papeletas. En algunos términos, la derecha española sigue igual, con ese fascismo cutre y casposo que le ha caracterizado siempre y que daría risa si no fuera porque a veces da miedo.

Por lo tanto, si en origen el debate era independencia sí o no, a día de hoy es otro a favor de los derechos democráticos; es decir, el debate sobre la independencia se ha convertido en Cataluña y en todo el estado en un debate sobre la defensa de los derechos democráticos, y eso precisa de una respuesta contundente. La sociedad catalana ya ha respondido. Por eso, creemos que debemos mostrarle todo nuestro apoyo al pueblo de Cataluña, a su parlamento, defendiendo sin ningún tipo de excusa el derecho a votar.

El Gobierno Vasco declaró que no piensa acudir el domingo a dar su apoyo al referendum; nosotros haremos nuestra pequeña aportación y cinco concejales de EH Bildu nos desplazaremos hasta allí para realizar labores de observación y apoyo.

Horregatik aurkezten dugu mozioa. Mozioak hau dio.

MOZIOAREN PUNTUAK IRAKURTZEN DITU.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Ziurrenik, gure herrialdeak 1981ko otsailaren 23tik demokrazia garaian bizi izan dugun ordena konstituzionalaren aurkako erasorik larrienari aurre egin beharko dio. Orduan demokraziak aurre egin behar izan zien Konstituzioa errespetatu nahi ez zutenei, demokraziari eraso egin ziotenei, 1981ko Espainia demokratiko hartan militar bakar bat ere –ezta gaur egun politikari bakar bat ere- Legearen gainetik ez zegoela ulertu ez zutenei.

Une honetan, Zuzenbidezko Estatuaren aurkako kolpe bati, Legearen eta gure elkarbizitzaren aurka doan hausturarako xantaia bati erantzuteaz ari gara; helburua gure demokrazia defendatzea da, eta hori beti da egokia.

Espainiako Gobernuak aspaldi ohartarazi zuen lurralde mailako batasunaren edozein haustura-saiakeraren edo legearen kontrako edozein ekintzaren aurrean tinko, lasai eta proportzionaltasunez erantzungo zuela, eta hori da, hain justu, egiten ari dena. Beraz, hemen ez da biktimarik, ez errepresiorik, ez salbuespen-egoerarik, Gobernuak jada abisatu baitzuen Zuzenbidezko Estatuari eraso egiten diona ez dela biktima, arauak ez betetzeak dakartzan ondorioen arduradun baizik.

Mozioa proposatu duzuen jaun-andreok, ez bilatu beste errudunik, badakizue zergatik? Demokrazian inork ez duelako legea bere onuran erabiltzeko pribilegiorik, ezta inpunitate osoz jokatzeko ere. Horretan datza legaltasunaren printzipioa: zuzenbidearen eskubidea gailentzen zaio beti indarkeriaren eskubideari. Demokrazian, Zuzenbidezko Estatua egon daiteke ala ez, eta demokrazia Legearekin bat dator beti. Horregatik, Legea askatasun-tresna bat da, Legeak guztiok berdintzen, babesten eta behartzen gaituelako.

Por este motivo presentamos la moción.

PROCEDE A LEER LOS PUNTOS DE LA MOCIÓN.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Posiblemente nuestro país se enfrenta al mayor reto al orden constitucional que hemos vivido en democracia desde el 23 de febrero de 1981. Entonces la democracia tuvo que defenderse frente a los que no respetaron la Constitución, frente a los que daban un golpe a la democracia y frente a los que no entendieron que en la España de 1981, la España de la democracia, ningún militar, pero tampoco hoy ningún político, está por encima de la Ley.

En estas fechas, de lo que estamos hablando es de responder a un golpe al Estado de Derecho, a un chantaje rupturista que va en contra de la Ley y de nuestra convivencia; se trata de defender nuestra democracia, y eso, siempre es oportuno.

En su momento, el Gobierno de España advirtió que ante cualquier intento de ruptura de la unidad territorial o de la legalidad vigente, respondería con firmeza, inteligencia, serenidad y proporcionalidad, y eso es, precisamente, lo que está haciendo. Por lo tanto, aquí no hay ni víctimas, ni represión ni estado de excepción puesto que, también en su día, el gobierno recordó que quien desafía al Estado de Derecho no es una víctima, sino único responsable de las consecuencias que se derivan del incumplimiento de las normas.

Señores proponentes, no busquen otros culpables, ¿saben por qué? Pues porque en democracia nadie tiene el privilegio de cumplir las leyes a su conveniencia ni tampoco existen espacios de impunidad para nadie. En esto consiste el principio de legalidad, en que frente al derecho a la fuerza está, siempre, la fuerza del derecho; en que en democracia o hay Estado de Derecho o no la hay como tal, y en que la democracia siempre vive con la Ley. Por eso, la Ley es un instrumento de la libertad, porque la Ley a todos iguala, a todos ampara y a todos obliga.

Mozioa proposatu duzuen jaun-andreok, zuzenbidearen printzipio orokorra eta unibertsala islatzen duten hitz hauek entzutean –izan ere, zuek maiz hitz egiten duzue askatasunaz eta erabakitzeaz-, zuek "guztiok" horren parte ez zaretela uste duzue? Zer demokrazia motak babes dezake halakorik? Bada, homologatua izatea merezi duenik ez, arau edo legerik gabe ezinezkoa delako demokrazia eta elkarbizitza.

Gobernuak hartutako neurrietako batzuez (edo guztiez) kexatzen zarete. Zer eskatzen duzue? Gobernuak bere egitekoa bete ez dezan? Negoziatu ezin denaren inguruan negozia dezan? Espainiako Gobernuak ezin du negoziatu eta, beraz, ez du halakorik egingo Legea betetzearen inguruan, ez Espainiako batasunaren inguruan, ez subiranotasun nazionalaren inguruan, eta ez du zalantzan jarriko espainiarren arteko berdintasuna eta elkartasuna.

Horiek guztiak dira gure elkarbizitzaren oinarriak eta, Alderdi Popularretik, beti defendatuko ditugu. Ozenago esan dezakegu, ez ordea argiago...

Demokrazian badira negoziatu ezin daitezkeen gauzak, esan dugun bezala. Ezin da Legearen aurrean denok berdinak garelako edo Legea guztioi aplikatzen zaigulako printzipioa negoziatu edo aldatu. Hau hala ez balitz, ez genuke demokraziarik izango, agian zuek nahi duzuen beste sistema bat baizik.

Badira espainiar guztiei dagozkien erabakiak, denon artean erabaki behar dugulako denon etorkizuna. Horiek dira arauak. Nork eman die zuek defendatzen dituzuenei eta hain identifikatuta sentiarazten dizueten horiei besteen izenean erabakiak hartu ahal izateko pribilegioa? Non dago idatzita batzuk gainerakoen eskubideen gainetik daudela? Badakizue ez dizuegula halakorik baimenduko eta autodeterminaziorako eta hausturarako erreferendum hori ezin dela egin eta, horregatik, ez dela egingo.

Señores proponentes, cuando ustedes escuchan estas palabras que plasman un principio general y universal del derecho, porque ustedes hablan mucho de libertad y decidir, ¿qué piensan, que "todos" no les incluye a ustedes también? ¿Qué clase de democracia ampara esto? Pues ninguna digna de homologación, porque sin reglas ni leyes, no puede haber ni democracia ni convivencia.

Los proponentes se quejan de alguna, por no decir de todas, las medidas que ha adoptado el Gobierno, ¿qué es lo que están pidiendo? ¿Qué el Gobierno no cumpla con sus obligaciones? ¿Qué negocie sobre lo que no puede negociar? Porque deben de entender que el Gobierno de España no puede negociar, y por lo tanto no lo va a hacer, ni sobre el cumplimiento de la Ley, ni sobre la unidad de España ni sobre la soberanía nacional, ni va a cuestionar la igualdad y la solidaridad entre españoles.

Estos son principios de nuestra convivencia, y. desde el Partido Popular. los vamos a defender siempre. Lo podemos decir más alto, pero no más claro...

Hay cosas que no se pueden negociar en democracia, lo acabamos de decir. No se puede negociar ni se puede alterar el principio de que todos somos iguales ante la Ley o que la Ley obliga a todos. Si esto no fuera así, no estaríamos en democracia, estaríamos en otra cosa que, a lo mejor, es lo que ustedes buscan.

Hay decisiones que corresponden a todos los españoles, porque entre todos decidimos el futuro de todos. Estas son las reglas. ¿Quién ha otorgado a los que ustedes defienden y con los que se identifican el privilegio de poder decidir por los demás? ¿Dónde está escrito que algunos tienen la prerrogativa de estar por encima de los derechos de todos nosotros? Ustedes saben que no se lo vamos a permitir y que ese referéndum de autodeterminación y ruptura no se puede celebrar, y por ello, no se va a celebrar.

Estatuaren erasoaz, Kataluniako autonomian esku-hartzeaz mintzo zarete, poliziaren ekintzak kritikatzen dituzue, oinarrizko eskubideen errepresioa aipatzen duzue, etab. Alderdi Popularretik esaten dizuegu baieztapen horiek guztiak faltsuak direla. Hasteko, Generalitateko egoitza ezberdinetan egindako miaketak eta atxiloketak Bartzelona 13. epaitegiko instruzioko epailearen aginduz burutu dira. Indar polizialak polizia judiziala diren neurrian aritu dira horrela, Auzitegi Konstituzionalaren babesarekin. Hau da, ekintza horiek Zuzenbidezko Estatuaren baitan burutu dira, independentzia judiziala oinarrizko zutabe duena.

Bestalde, argitu beharra dago erreferendum sezesionistaren antolaketarekin lotutako jardueretan baino ez dutela esku hartu. Govern delakoak badaki, Auzitegi Konstituzionalak hala jakinarazita, erreferendum hori legez kanpokoa dela eta ez duela hura antolatzeko konpetentziarik. Horregatik, miaketak ez dira bereizi gabe burutu, hautatuak baizik eta, horregatik ere, bertan behera utzitako erreferendumaren inguruko irailaren 6ko legearen aplikazioarekin lotutako web orrialdeak itxi dira.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Alderdi Sozialistak mozio alternatiboa aurkeztuko du. MOZIOA IRAKURTZEN DU:

"*Durangoko udalak uste du hausnarketa kolektibo bat egin beharra dagoela egunotan pilatzen ari diren gertaeren aurrean, ustez, inoren gustukoak ez direnak, baina inork ez duelarik beraien gaineko erantzukizunik hartu nahi.*

*1. Katalunia eta gainerako Espainiaren arteko harremana konpondu barik dago 2010. urtetik. Urte hartan, auzitegi gorenak aldatu egin zuen katalanek 2006an bozkatu zuten Estatut-a. PPren ausarkeriazko jarrerak hankaz gora bota zuen zentzuzko akordioa.*

*2. Harrez gero, Kataluniako eta Espainiako gobernuak ez dira kapaz izan eztabaida serio bat egiteko arazoa konpontzeko.*

Los proponentes hablan de ataque del Estado, de intervención de la autonomía catalana, critican las operaciones policiales, hablan de represión de libertades básicas, etc. Desde el Partido Popular les decimos que todas esas afirmaciones son falsas. En primer lugar: los registros y detenciones practicadas en distintas dependencias de la Generalitat han sido ejecutadas por indicación del juez de instrucción nº 13 de Barcelona, actuando las fuerzas policiales en su calidad de policía judicial, al amparo del Poder Judicial y con el respaldo del Tribunal Constitucional. Es decir, estas actuaciones se enmarcan en el Estado de Derecho del que la independencia judicial es pilar básico.

Por otra parte, hay que precisar que sólo se ha intervenido sobre las actividades relacionadas con la organización del referéndum secesionista. El Govern sabe, pues así se lo ha comunicado el Tribunal Constitucional, que ese referéndum es ilegal y que no tiene competencias para organizarlo. Por eso, los registros no han sido indiscriminados, sino selectivos y, por eso también, se ha procedido al cierre de las páginas webs relacionadas con la aplicación de una ley suspendida, la de referéndum del 6 de septiembre.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: El Partido Socialista presenta una moción alternativa. LEE LA MOCIÓN:

"*El Pleno del Ayuntamiento de Durango considera que los acontecimientos que se acumulan en los últimos días, y que nadie dice querer y de los que nadie quiere responsabilizarse, nos obligan a una reflexión colectiva a la que queremos contribuir.*

*1. La relación entre Cataluña y el resto de España es una cuestión no resuelta desde el año 2010 cuando el Tribunal Constitucional alteró el Estatut votado por los catalanes en 2006. La actitud temeraria del PP contribuyó de forma decisiva a dinamitar un acuerdo razonable.*

*2. Los gobiernos de Catalunya y España desde entonces han sido incapaces de establecer un diálogo serio para encarrilar esta cuestión.*

*3. Kataluniako gobernuak eta berau babesten duen gehiengo independentistek aldebakarreko bide ilegalari ekin diote. Gogoratu beharra dago, hurrenez hurren, honako urraketak eman direla: Parlament-aren araudia, oposizioaren eskubideak, Kataluniako estatutua eta Espainiako konstituzioa.*

*4. Aldebakarreko bide ilegal honek porrota baino ez du ekarriko, eta Estatuko botereak jardun beharra dute erreferenduma eragozteko, izan ere, ilegaltzat hartzen dute Kataluniako parlamentuko legelariek, Kataluniako Consell de Garanties Estatutàries erakundeak, auzitegi gorenak eta Europako kontseiluko Veneziako batzordeak.*

*5. "Tren-talka" honen aurka gaude, nahiz eta askorentzat horren garrantzitsua ez izan. Guk elkarrizketa, negoziaketa eta paktua defendatzen ditugu; baina gure planteamendu honi, zoritxarrez, muzin egin zaio eta aurreikusten genuen tren-talka, azkenean, gertatu egin da.*

*6. Elkarrizketa politikoa da arazo honek daukan irtenbide bakarra. Kataluniak autogobernua eta finantzaketa irabaziko lituzke, eta Espainia estatu federal bihurtuko litzateke. Proposatzen dugun paktu honek konstituzioaren erreforma ekarriko luke, herritarrek bozkatuko luketen erreforma alegia. Bartzelonako Deklarazioan jasota daude gure proposamenaren elementu garrantzitsuenak, eta begi onez ikusten dugu Diputatuen Kongresuak sustatuko duen batzordea era honetako arazoei konponbidea emateko.*

*7. Une honetan dei bat egin nahi diegu Kataluniako eta Espainiako gobernuei hondamendira baino ez garamatzan bide hau gelditzeko. Katalunia eta Espainiaren arteko arazoaren konponbidea ez da auzitegietatik etorriko, baina guztiok jokatu behar dugu legearen barruan. Estatuak erabaki du legearen kontrako erreferenduma eragoztea, baino honek ez du zertan mugatu eztabaida politikoa eta konstituzioak ezartzen dituen eskubideak.*

*3. El gobierno catalán y la mayoría independentista que le da apoyo han optado por una vía unilateral e ilegal. Es necesario recordar que aquí se han vulnerado ya, y por este orden, el Reglamento del Parlament, los derechos de la oposición, el Estatut de Catalunya y la Constitución española.*

*4. Esta vía unilateral e ilegal está condenada al fracaso y comporta la actuación de los poderes del Estado para evitar la celebración de un referéndum que está considerado ilegal por los letrados del Parlament de Catalunya, el Consell de Garanties Estatutaries de Catalunya, el Tribunal Constitucional y la Comisión de Venecia del Consejo de Europa.*

*5. Nos mostramos contrarios al "choque de trenes" que otros minimizaban, y seguimos defendiendo otro camino: el camino del diálogo, la negociación y el pacto. Un planteamiento que, desgraciadamente, no ha sido atendido y el choque de trenes del que advertíamos ha llegado.*

*6. El diálogo político es la única vía que puede permitir salir de este callejón sin salida para que Catalunya gane en autogobierno y financiación, y para que España se transforme en un Estado federal. El pacto que proponemos debería culminar en una reforma constitucional federal que fuera sometida al voto de la ciudadanía. En la Declaración de Barcelona están recogidos los elementos esenciales de nuestra propuesta y valoramos positivamente el impulso en el Congreso de los Diputados de la creación de una Comisión parlamentaria para abordar estas cuestiones.*

*7. En estos momentos llamamos a los gobiernos de Catalunya y España a detener una escalada que nos lleva a todos al desastre. La solución al problema de la relación entre Catalunya y el resto de España no vendrá de la mano los tribunales, pero el respeto a la legalidad nos obliga a todos y todas. La determinación del Estado de impedir la celebración de un referéndum ilegal no puede implicar en ningún caso limitar el debate político y los derechos consagrados en la Constitución.*

*8. Horrexegatik eskatzen diogu Kataluniako gobernuari uko egin diezaiola legearen kontrako erreferenduma antolatzeari, eta uko-egite honek Kataluniako eta Espainiako indar politiko guztiak bilduko lituzkeen eztabaida- eta negoziaketa-prozesua ahalbidetu dezala. Espainiako gobernuari eskatzen diogu erantzun politikoa eman diezaiola arazo politiko honi, eta ez dezala pentsa botere judiziala izan dadila arazo politiko honi erantzungo dion bakarra. Parte biek egin behar dute duela zenbait hilabete egin behar zutena: hitz egin.*

*9. Konpromisoa hartzen dugu arazo hauen aurrean irtenbide demokratiko eta adostua aurkitzen laguntzeko, eta horixe eskatzen diegu erakunde eta alderdi guztiei: ekarpen positiboak egin ditzatela norabide honetan.*

*10. Dei egiten dugu baretasuna eta lasaitasun gailendu daitezen. Erakunde demokratikoen betebeharra da arazo honi irtenbidea bilatzea, eta ez, ordea, konponbidearen soluzioa herritarren esku uztea. Katalanek bermatuta dituzte euren eskubideak, eta Kataluniak ere, herri gisa, bermatua ditu bere eskubideak autonomiarekin. Aldebakarreko bidean tematzeak arriskuan jar ditzake bata zein bestea. Kataluniako eta Espainiako gobernuei eskatzen diegu erantzukizunez joka dezatela eta, lehenbailehen, elkarrizketaren bideari ekin diezaiotela, arazoa konpontzeko bide bakarra delako."*

*8. Es por todo ello que pedimos al gobierno de Cataluña que renuncie a la organización de un referéndum ilegal y que esta renuncia haga posible la apertura inmediata de un proceso de diálogo y negociación al que estén convocadas todas las fuerzas políticas catalanas y españolas. Pedimos al gobierno de España que dé una respuesta política a un problema político y que no pretenda que la única respuesta del Estado a este problema político la dé el poder judicial. Ambas partes deben hacer hoy lo que hace meses deberían haber hecho, hablar.*

*9. Nos declaramos comprometidos a contribuir a encontrar una solución democrática y acordada a los problemas planteados y queremos emplazar a todas las instituciones y partidos a hacer contribuciones positivas en esta dirección.*

*10. Llamamos a la serenidad y la calma. Las instituciones democráticas tienen la obligación de encontrar una salida al conflicto abierto que vivimos y no deben trasladar a la ciudadanía la solución del problema. Los catalanes y las catalanas tienen garantizados sus derechos y Cataluña como país su autonomía. Sólo el empecinamiento en una vía unilateral e ilegal puede ponerlos en peligro. llamamos a la responsabilidad de los gobiernos de Cataluña y España para iniciar de forma inmediata el diálogo, la única vía, reiteramos, de solución."*

* <u>Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)</u>: Guk legea herritarren zerbitzura dagoela uste dugu, haiek baitira zilegitasuna dutenak. Legeak ezin da herri subirano baten nahia mugatzen duen alkandora hertsagarria. Ordena konstituzionala aipatu duzu, baina ordena konstituzionala nahi denean alda daiteke, ezta? Ez oso aspaldi 135. artikulua aldatu genuen eta ez zen tankerik irten kalera, eta konstituzioak agintzen dituen beste gauza asko ez dira betetzen.

* Concejal **<u>Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)</u>**: Nosotros creemos que la ley tiene que estar al servicio de la ciudadanía, que es quien tiene la legitimidad. La ley no pude ser una camisa de fuerza para restar la voluntad popular de un pueblo soberano. Se habla por aquí de orden constitucional; el orden constitucional cuando se quiere se cambia, ¿no?. Hace un tiempo, por la puerta de atrás, cambiamos el 135 y no salieron los tanques a la calle, y otra serie de cosas que recoge la constitución no se cumplen.

Bestalde, inork konstituzioa edo legeak urratuz gero, hori Alderdi Popularra da, ustelkeria egozten zaien mila kidetik gora dituena. Ez diot nik hori, epaileek egiaztatu dute. Herrialde demokratiko deritzegunen zentzugabekeriarik handienaren aurrean gaude; demokrazia krisian dagoen garaian, erantzunak demokrazia gehiago izan behar du, ez salbuespen-egoera, ez eskubide eta askatasunen murrizketa, ez atxiloketak... Zentzua, hitz egitea eta mahai baten inguruan biltzea, hori da behar duguna; ez Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzea.

Erabakitzeko eskubidea edozein demokrazia garatu eta egonkorren oinarrizko elementua da, herritarrek eskubidea dute eragiten dieten alderdi guztien inguruko iritzia adierazteko eta erabakiak hartzeko, lurraldearen ingurukoak barne. Hitz egiteak duen garrantzia azpimarratzen dugu, elkarrizketarik gabe ez baitago konponbiderik, eta konponbiderik gabe ez dago demokraziarik. Espainiako Gobernuak errepresioaren bidetik jo du, eta iraganeko garaietako ohiturak gogorarazten dizkigu.

Ezin da erakundeen blokeoa eta salbuespen-egoera onartu; fiskaltza boto-txartel eta hautetsontzien atzetik dabil, politikari ustelen atzetik ibili beharrean. Konpontzea zaila izango den gizarte mailako haustura eragin duen politikaren porrotaren aurrean gaude. Lege penalaren bidetik ez dugu gizarte mailako aldaketarik lortuko, bozkatzea demokraziaren sinonimo da; bozkatu ezin izatea beste zerbait da, ez demokrazia. Katalunian bozkatu ahal izan behar dute, hori ahalbidetuko lukeen aukera bilatu behar dugu. Gero eta preso politiko gehiago daude, erakunde publikoetan ustelkeria hedatzen ari den bitartean; 116. artikulua isilpean aplikatzearen aurka gaude.

Kataluniak bere etorkizuna erabakitzeko eta herrialde subiranoa izateko eskubidea defendatzen dugu. Estatuaren botereak eta haren erakundeek hori onartzen ez badute, desobedientzia zilegi da, lege bidegabeen aurreko desobedientziak eragiten baitu gure gizarteak aurrera egitea. Herritarren askatasuna, demokrazia eta elkarrizketa defendatzen ditugu 1978an inpo-

Por otro lado, si alguien incumple la constitución, la leyes, es el Partido Popular, con más de mil imputados y procesados por corrupción. Esto no lo digo yo, está verificado por los jueces. Estamos asistiendo a uno de los mayores sinsentidos en lo que denominamos países democráticos, en un momento que se da crisis de democracia la respuesta debe de ser más y más democracia; no estados de excepción, no recorte de derechos y libertades, no detenciones... Necesitamos sensatez, diálogo y sentarnos en una mesa, no aplicar de facto el artículo 155 de la Constitución.

El derecho a decidir es un elemento esencial en una democracia que se considere desarrollada y consolidada, los ciudadanos tienen derecho a expresar y a decidir en todos los ámbitos que les afecten, incluido el encaje territorial. Insistimos en la importancia del diálogo, ya que sin diálogo no hay solución y sin solución no hay democracia. El Gobierno de España sólo está utilizando la solución de la represión, nos recuerda a viejos usos y costumbres de épocas pasadas.

No puede darse un bloqueo institucional y de estado de excepción; la fiscalía persiguiendo papeletas y urnas en vez de corruptos. Estamos ante un fracaso de la política que ha llevado a una fractura social difícilmente reparable. Por la ley penal no se puede conseguir un cambio social, votar es sinónimo de democracia; no poder hacerlo es otra cosa, pero democracia no. Hay que poder votar en Cataluña y buscar la manera de que sea posible. Cada vez más presos políticos mientras la corrupción está parasitando las instituciones; no a la intervención por la puerta de atrás del artículo 116.

Defendemos el derecho de Cataluña de decidir sobre su futuro y a ser un pueblo soberano. Cuando esto no se admite por parte de las instituciones del poder central es legítimo desobedecer, sólo la desobediencia a la lay injusta ha hecho avanzar a nuestras sociedades. Defendemos las libertades civiles, la democracia y el diálogo para romper el marco constitucional que se nos impuso en el 78.

satu ziguten konstituzioa gainditzeko. Kataluniak berme osoa duen erreferendum baten bidez erabakiko du, baina, aldi berean, beharrezkoa da urriaren 1eko mobilizazioa babestea; ezin dugu onartu Europako alderdirik ustelenak irabaztea, bihar autoritarismo-kolpe bera erabiliko bailukete edozein gizarte-borroka zapaltzeko.

Zuekin gaude, Kataluniako kideok.

* 4. Alkate ordea **Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Guk, atzo Bozeramaileen Batzordean aurreratu genuen bezala, mozio alternatibo bat aurkezten dugu. Pasa den eguenean Eusko Legebiltzarrean onartu egin zen testu hau Podemos Euskadi, EH Bildu eta EAJren aldeko botoekin.

MOZIOA IRAKURTZEN DU.

1. *"Durangoko Udalak bere kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateeen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoei.*

2. *Durangoko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.*

3. *Durangoko Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erekunde guztiei.*

4. *Durangoko Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera."*

Cataluña debe decidir en un referéndum con todas las garantías, pero también es necesario apoyar la movilización que supone el referéndum el 1 de octubre; no podemos permitir que el partido más corrupto de Europa nos gane la batalla del 1 de octubre, porque mañana utilizarán ese mismo golpe de autoritarismo para reprimir cualquier lucha social.

Estamos con vosotras y vosotros compañeras de Cataluña.

* 4ª Tnte. de Alcade **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros, tal y como adelantamos ayer en la Junta de Portavoces, presentamos una moción alternativa. Este texto fue aprobado el pasado jueves con los votos de Podemos Euskadi, EH Bildu y PNV.

PROCEDE A LEER LA MOCIÓN.

1. *"El Ayuntamiento de Durango muestra su rechazo y alarma por la intervención por la vía de hecho de la autonomía catalana y por la operación policial llevada a cabo por las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado que ha conllevado registros y detenciones en instalaciones y responsables legítimos de la Generalitat.*

2. *El Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno de España a desistir en su estrategia represiva de libertades básicas y fundamentales contraria a los principios básicos de la democracia.*

3. *El Ayuntamiento de Durango reafirma su compromiso con todos los principios democráticos fundamentales y muestra su solidaridad con el pueblo de Catalunya y todas las personas e instituciones que están padeciendo la represión política y antidemocrática dirigida por el Gobierno de España.*

4. *El Ayuntamiento de Durango insta a que se posibilite la expresión de la voluntad democrática del pueblo de Catalunya y se respete su decisión."*

